

# HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA

## 2014



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN  
**BEHATOKIA**

**OHARRA:** Argitalpen honetan agertzen diren datuak, informazioa eta abar baliatu nahi izanez gero iturria aipatzea eskertuko genuke.

**Izenburua:** Hizkuntza-eskubideen egoera Euskal Herrian, 2014

**Mota:** urteko txostena

**Egilea:** Hizkuntz Eskubideen Behatokia

**Legezko Gordailua:** LG NA 1057-2015

**Argitaratze data:** 2015-06-11

**Ale kopurua:** argitalpen digitala ([www.behatokia.eus](http://www.behatokia.eus) atarian eskuragarri)

# HITZAURREA

#milesker

Hedabideetan zein sare sozialetan zurrumbilo ikaragarria sortu zuen Eibar futbol taldeko entrenatzaile Gaizka Garitanok Almeria futbol taldearen prentsa-aretoan hartutako jarrerak. Hain zuzen ere, kazetari bati euskaraz zuzentzen ari zitzaiola, beste kazetari batzuk oldartu zitzaizkion gaztelaniaz hitz egin zezala zakarki eskatuz, bai eta bere hitzaldia moztuz ere. Horren aurrean, Garitanok mahaitik altxatu eta alde egin zuen.

Esan bezala, oihartzun handia izan zuen jarrera horrek eta askok ahalduntzearen isla zela adierazi genuen. Finean, Gaizka Garitanok bere botere-eremua baliatu zuen euskaraz bizi nahi duela aldarrikatzeko.

Beste urte batez, eskuartean duzun Behatokiaren Urteko Txostenak euskaraz bizitzeko nahari irmoki eutsi dioten ehunka herritarren testigantzak jasotzen ditu, alegia, Garitanoren jarrera aktiboaren antzeko portaerak dituzten herritarren bizipenak bildu ditugu.

Izan ere, hizkuntza-eskubideez edota eskubideen egoeraz hitz egin behar badugu, herritarrak dira horretarako bozeramaile egokienak. Hain zuzen ere, egunero euskaraz bizi nahi duten herritarrak, baina euskaraz bizitzen uzten ez zaienak. 2015ean, oraindik, ez dago gure herrian euskaraz bizitzerik eta euskaraz jarduteko ezintasuna mota guztietako zerbitzu eta jardueretan islatzen dela erakusten dute ehunka bizipenok: osasun zerbitzuetan, justiziaren eremuan, segurtasun arloan, administrazio guztien jarduera orokorretan, hezkuntzan, aisialdian, komunikabideetan, edota sektore sozioekonomikoko kontsumo-harremanetan ere.

Halere, 2014ko bilanak herritarren duintasunak eta jarrera aktiboek hizkuntza-eskubideen arloan pauso eragingarriak bideratzeko balio dutela erakusten du. Euskaraz bizi nahi duten pertsonak beren hizkuntza-eskubideak egiazki bermatzeko egiten duten indarra administrazioen eta entitateen hizkuntza-portaeretan aldaketak sustatzen dituztela erakusten dute txosteneko hainbat adibidek. Eta, hori izan beharko genuke oinarri. Finean, ahalduntzeak emaitzak ekartzen ditu, eta, ondorioz, zenbat eta herritar gehiago (eusk)ahaldundu harik eta lehenago bizi ahal izango gara euskaraz.

**Paul Bilbao Sarria**  
*Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren lehendakaria*



# AURKIBIDEA

0.	SARRERA.....	7
1.	HERRITARREN AHALEGINAREN EMAITZAK .....	11
2.	OSASUNGINTZA .....	17
3.	HERRIZAINGOA/SEGURTASUNA .....	23
4.	HEZKUNTZA .....	29
5.	JUSTIZIA.....	33
6.	ADMINISTRAZIO JARDUERA OROKORRAK.....	37
7.	UDALAK/HERRIKO ETXEAK .....	43
8.	KULTURA/HEDABIDEAK .....	47
9.	KONTSUMO ZERBITZUAK .....	51
10.	ONDORIOAK.....	55
11.	DATUAK.....	59



EUSKARAZ

BIZI

NAHI DUT

# 0. SARRERA

## HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

Euskal hizkuntza-komunitatea estatus juridiko ezberdinen mende dago eta euskaldunari bizi den tokiaren arabera aitortzen zaizkio hizkuntza-eskubideak. Horrela, euskaldunon hizkuntza-eskubideei buruzko diagnosia, egun indarrean dauden ordenamendu juridikoen arabera eginez gero, hainbat kasutan eskubideak ez direla urratzen ondoriozta liteke.

Hizkuntza-eskubideen diagnosi egokia egiteko, beraz, ezinbestekoa da beste erreferentzia bat erabiltzea.

1996an Bartzelonan PEN Club International eta CIEMEN (Centre Internacional Escarré per a les Minories Ètniques i les Nacions) erakundeak sustatu eta UNESCO erakundeak babestutako Hizkuntza Eskubideei buruzko Mundu Mailako Biltzarrean Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zen. Bertan 66 Gobernuz Kanpoko Erakunde, PEN International erakundeko 41 zentro eta hizkuntza-eskubideen inguruko 41 aditu bildu ziren eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zuten.

Deklarazio honek abiapuntutzat du *hizkuntza-eskubideak indibidualak eta kolektiboak direla. Horrela, hizkuntza-eskubideen betetasunaren erreferentetzat hizkuntza-komunitate historiko bat bere lurralde-eremuan hartzen du, beti ere, eremu hori ulerturik komunitate hori bizi den eremu geografikoa ez ezik, bai eta hizkuntzaren garapen osorako ezinbestekoa den espazio sozial eta funtzional gisa ere.*

Horrela bada, nazioarteko adierazpen garrantzitsu hau abiapuntu eta oinarri hartuta garatzen du Hizkuntz Eskubideen Behatokiak bere jarduna.

## HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

Behatokia Euskal Herriko herritarren hizkuntza-eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, babestera zuzentzen du bere jarduera.

Euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak babestu eta defendatzeaz ez ezik urratzen direnean salatzeaz ere arduratzen da Behatokia.

Euskal Herrian euskaraz mintzatzeko, administrazioari zuzendu eta administraziotik zerbitzuak jasotzeko (osasuna, hezkuntza, justizia, informazioa edo beste edozein

zerbitzu), bai eta orokorrean, jendarteak eskaintzen dituen aukerak euskaraz baliatzeko euskal hiztunek dituzten eskubideak babestea da Behatokiaren xedea.

### **Zein dira Behatokiaren lan-ildo nagusiak?**

> Herritarren kexak hartzen ditu baldin eta Euskal Herrian euskara erabiltzeko eskubidea ez bazaie errespetatu, ukatu bazaie edo euskaraz egiteagatik kaltetuak izan badira.

> Kexak bideratu egiten ditu erakunde publiko zein pribatuen aurrean eta, beharrezkoa denean, bide judizialera ere jotzen du. Horretarako *Euskararen Telefonoa* izeneko zerbitzua eskaintzen die herritarrei, gertatu zaizkien eskubide urraketen berri Behatokiari jakinarazteko.

> Hizkuntza-eskubideen betetze-egoeraren azterketak eta txostenak egiten ditu eta horiek euskal jendarteari eta Euskal Herriko administrazio-erakundeei aurkezten dizkie.

> Euskal hiztunen hizkuntza-eskubideen egoeraren berri ematen du nazioartean eta harreman zuzena du munduko hainbat erakunderekin: Europako Kontseilua, Nazio Batuen Erakundea...

> Hizkuntza-eskubideen edukiak zabaltzen ditu eta bertako hizkuntza erabili eta arlo guztietan garatzeko Euskal Herriko jendarteak duen eskubide gisa defendatzen ditu.

> Hizkuntza-eskubideekiko kontzientziatzea eta sentiberatzea lantzen ditu.

> Aldez aurreko lana egiten du eragin handiko tokietan euskararen presentzia soziala bermatzeko.

### **HIZKUNTZ-ESKUBIDEEN EGOERA 2014 URTEAN**

Ondorengo lerro hauetan islatuko dugun azterketa 2014an zehar herritarrek Behatokira helarazitako gertaeretan oinarritzen da. Euskararen Telefonoaren bidez, administrazio publikoen eremuan zein sektore sozioekonomikoan, euskaraz jarduteko eskubidea errespetatu ez zaienean, Behatokira jo dute babes bila edota salaketa egitera, bizi izan duten hizkuntza-eskubideen urraketaren aurrean eragiteko asmoz. Horrela bada, azterlan honen iturria herritarren beraien bizipenak dira, euskal hiztunek euren egunerokoan euskaraz jarduten saiatu direnean bizi izan dituzten egoerak.

Behatokiak ez du kexa anonimorik onartzen baina konfidentziasun osoz jokatzeko du; alegia, ez du herritarren daturik zabaltzen, ez eta erakundeak edo administrazioak berariaz eskatuta ere.

Esan behar dugu Behatokian kexa jartzeak beti dituela ondorioak. Kasu batzuetan, urraketa-egoera gainditzeko neurriak hartzea bultzatzen delako; beste batzuetan, egoera hobetzeko indar egiten delako; eta, azkenik, eskubide horien bermean eta euskararen



normalizazioaren bidean hutsuneak identifikatzen dituelako.

Hizkuntza-eskubideak urratu zaizkionean herritarrak sentitu duen mina, gutxiespena eta bazterkeria ezin ditugu hemen islatu baina, banaka-banaka, jazotako gertaera guztiek, agerian uzten dituzte gaur egun euskararen lurraldean euskaldunok euskaraz bizitzeko ditugun zailtasunak eta oztopoak, hala nola pairatzen ditugun hizkuntza-eskubideen urraketak.

Euskal Herriko Iparraldean nola Hegoaldean, administrazio maila guztiekin (Estatu administrazioekin, administrazio autonomikoekin, toki administrazioekin) eta sektore sozioekonomikoarekin zerikusia duten gertaerak helarazi dizkigute herritarrek 2014 urtean zehar: mediku kontsultan euskaraz aritzeko eskubidea ez bermatzea, euskaraz ikasteko oztopoak aurkitzea, segurtasun-indar ezberdinekin euskaraz egin ezin izana edota erantzun txar bat jasotzea.... Baina ezin euskaraz bizitzeko oztopoak aldi oro eta etengabeki salatzen bizi.

Horrela bada, Behatokian jaso ditugun gertaera horiek guztiak errealitatearen zati bat, lagin bat besterik ez dira, baina euskal hiztunen benetako egoerara eta egunorokoan aurkitzen dituzten zailtasunetara gerturatzen gaituzte.




euskaraz  
koizi  
nahi dut



# 1. HERRITARREN AHALEGINAREN EMAITZAK

2014an Hizkuntz Eskubideen Behatokia jaso ditugun bizipenak errealitatearen argazkia dira. Euskaraz bizitzeko aukera eta eskubidea mugatuta dugun testuinguru honetan, hizkuntzagatiko diskriminazioak sortzen dizkien oztopoei aurre egin eta konponbidea eta laguntza bilatu asmoz Behatokira jo duten herritarren bizipenak dira.

Euskaraz bizitzeko hautua egin duten pertsonen ahalegina islatzen dute. Zailtasunen aurrean uzkurto gabe, norberarengandik sortzen den gaitasuna determinazioz erabili dutenen bizipenak dira. Euskaraz bizitzeko desirari determinazioz heldu eta eginahal horretan Behatokian babesa bilatu dutenenak.



Eta ahalegin horrek emaitzak ematen ditu hainbatetan. Batzuk beste batzuk baino garrantzi eta dimentsio praktiko handiagokoak, bai; baina horietako bakoitzak euskara erabiltzeko eta euskaraz bizitzeko aukerak areagotu egiten ditu.

Horrela, herritarren duintasunak eta jarrerak, hizkuntza-eskubideak bermatuko

dituen neurriak hartzea, urratsak ematea eta hizkuntza-portaeretan aldaketak eragiten dituzte. Hona hemen zenbait adibide:

Nafarroako Foru Erkidegoko hegoaldean, “eremu ez-euskalduna” deiturikoan, haurrak D ereduan matrikulatu eta euskaraz ikasteko ezintasuna eta debekuaren ondorioz, zonalde horretako familiek urtetan luzatu den egoera lazgarria bizi dute: umeak errepidean jartzearen arriskua (ume batek bizia galdu du bidaia hauetako batean), bidean eman beharreko denbora, lan ordutegiakin uztartu beharra, zama ekonomikoa...

Urtetako bazterketa eta ukazioaren ondoren, ehunka familia eta gurasoren ahalegin eta indarrak eman du fruitua: euskarazko irakaskuntza Nafarroa osoko sare publikoan bermatzeko asmoarekin, Euskararen Legea aldatzea onartu zuen Nafarroako Parlamentuak. Onartutako erreformak 1986tik indarrean dagoen zonifikazioa bertan behera utzi ez badu ere, emandako pausoa Nafarroa osoan ofizialtasuna lortzeko bidean urrats garrantzitsua izan da.



D ereduia Nafarroa osora zabaltzea onartu du Legebiltzarrak



Hezkuntza arloan herritarrek eragindako beste aldaketa bat erdietsi zen Murgian, Arabako Zuiako hiriburuan dagoen Virgen de Oro eskolan. Izan ere, D ereduan matrikulatzeko ezintasunaren aurrean egoera aldatzeko ahalegina egin zuten bertako hainbat gurasok. Eginahalaren ondorioz, D eredia martxan jarri zen 2014-2015 ikasturtean.



## Interneteko albistegia

2014-07-29

*“Zumaian lortu zuten, Muxikan ere lortu dute. Herritarrek keak aurkeztu eta udalak salaketa publikoa egin ondoren Osakidetzak egoera zuzendu du, bajaran dagoen medikuaren ordez mediku euskalduna jarritz. Zorionak!”*

Haurrek beraien beldur, estutasun eta guzti, euren hizkuntzan hitz egingo dien norbaitek artatuak izan daitezen merezi dutela eta horretarako eskubidea dutela aldarrikatu zuten herritarrek.


Elkarlanean, hori hala izan dadin lortu zuten, “mediku baten perfil egokia ez duelako medikuntzari buruz dakienak bakarrik markatzen”.



Donostiako bizilaguna den Maxux Rekaldek bere gaixotasunari aurre egiteko Gipuzkoako Alzheimerdunen eta Bestelako dementziadunen Senitartekoen eta Lagunen Elkartera (AFAGI) arreta terapeutikoa eskatzera joan zenean, zailtasunak aurkitu zituen terapia euskaraz jaso ahal izateko. Baina Maxuxek erakutsitako indarrak eta egindako eginahalak emaitza izan zuen: egun arreta eta zerbitzua euskaraz jasotzen ari da.




Erantzun positiboa izan duen beste gertaera bat Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearekin batera landutakoa izan da. Herrietako jaietan suzko zezenak eramaten dituztenek jaso beharreko prestakuntza ikastaroa, Eusko Jaurlaritzaren eskumena da. Ikastaro hori gaztelaniaz izateagatik UEMAk Behatokiarekin batera egindako eskaerari erantzunez, hauxe jakinarazi zuten Segurtasun Sailetik:



Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kalitatearen Institutuak Iruñeko markesinetan paratutako iragarkia gaztelania hutsean egoteagatik keza jarri ondoren, hona emaitza:



Bilboko Metropolitan gimnasioko errotulazioan, iragarkietan eta abar euskaraz duen presentzia eskasa dela eta herritar batek jarritako keza helarazi zion Behatokiak gimnasioari. Handik eta egun batzuetara hona Behatokiko telefonora herritarrak bidalitako mezua:



Kale eta obretako kartel, ohar, txartel eta abarretan ere zenbait aldaketa eragin dira herritarrek jarritako keixaren ondotik.



Lehen



Orain



interbiak BFA DFB

BEHATOKIA  
MARCELO ZELAIETA ETORBIDEA, 75 UJ  
ERAKINA-13 BULEGODA  
301014 - IRUÑEA

Ref. 614-2014

Bilbo, 2014ko urriaren 20ean.

Jaun agurgarria:

Honen bidez, erantzuna ematen diogu irailaren 17an Interbiak-en sartu zen zure 614-2014 zenbakiko keixari. Keixa horren bidez, hizkuntz Eskubideen Behatokia iritsitako keixa bat helarazi zenigun. Amorebieta-Muxika errepide berria egiteko obraren barruan, Zugaztieta auzoko obrako hainbat karteletan eta seinaleetan akats batzuk zeudela aipatzen zuen, hain zuzen ere.

Zure idazkia jaso bezain laster, obra egiteko kontratatu den enpresara bidali genuen, eta jakinarazi genien ezen, enpresarekin sinatutako kontratuan jaso den bezala, letrero, seinale edo herritarrentzako informazio guztiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan agertu behar direla.

Ostiralean, urriaren 17an, kartel berriak jarri ziren, euskaraz eta gaztelaniaz, eta ikusitako akatsak zuzendu ziren.

Adeltasunez,

Fco. Javier Olivares Lapatza - Gortazar

interbiak BFA DFB

20 OCT 2014

Sarrera - Entrada  
Irteera - Salida

Estimado Sr.,

Nos referimos su escrito referente al seguimiento de la queja 614-2014 con fecha de entrada en Interbiak de 17 de septiembre, en el que nos traslada una queja llegada a su Observatorio de Derechos Lingüísticos refiriendo errores en distintos carteles de obra y señalización en el barrio de Zugaztieta, y dentro de las obras que se están realizando de la nueva carretera Amorebieta-Muxika.

Tan pronto recibimos su escrito se dio traslado del mismo a la empresa contratada para la ejecución de la obra, recordándole la obligación, reflejada en el propio contrato de utilizar para cualquier letrero, señal o información a los ciudadanos los dos idiomas oficiales de la CAPV.

Desde el viernes, 17 de octubre, se han colocado de los nuevos carteles en euskara y castellano, corregidos los errores detectados.

Atentamente,

Zuzendari-kudeatzailea

beteko ditu. "

Hortaz, alpatu eskumen hori kontuan hartuta, Gertentzia honek seinalizazioa elebitan egoteko agindua eman du dagoneko.

Restetik, irizpide hau jakinarazteaz gain, hurrengo kontratazioetan obretako seinaleak eta sarreak elebitan egoteko beharra ere jasoko da, eta horrela egiten ez bada, zigor sistema baten bidez isunak ezarriko lirateke berrig gerta ez dadin. Horrekin honen moduko intzidentziarik berriro ez gertatzea espero dugu.

Aldiz aurretik zuen begirunea eskertuz, har ezazue gure agurrik beroena.

2014ko otsailaren 7an

Don Ángel Llamazares Álvarez Jr.  
Gerentea / Gerente

cerca de la instalación de señales complementarias o modificaciones de las que haya instalado. "

Por lo tanto, haciendo uso de dicho precepto, esta Gerencia ha dado órdenes precisas para que la señalización se modifique y se ponga en bilingüe.

Por otra parte, además de transmitir este criterio, en las próximas contrataciones se recogerá en los pliegos la obligatoriedad de poner la señalización de las obras y accesos en bilingüe, en su caso, gravando los incumplimientos con un sistema de sanciones, esperamos que una incidencia como esta no vuelva a suceder.

Agradeciendo de antemano la atención prestada reciba un cordial saludo.

7 de febrero 2014

POR FAVOR, NO DOBLAR

El Corte Inglés

MESEDEZ, EZ TOLESTU

EL CORTE INGLÉS S.A. Dom. Soc. Herentzia 119, 28002 MADRID / NO. F. 410.735.4  
Ins. Reg. Madrid, Madrid, Tomo 677 - Cdad. 67; Sección 4ª - del I. de 3. Hoja 8085, Folio 182.

TIQUE DE APARCAMIENTO - APARKALEKUKO TXARTELA -  
SIN ENTREGA DE LLAVES GILTZAK EMAN GABE

HORARIO: / ORDUAK:  
Este aparcamiento permanecerá abierto hasta quince minutos después del cierre de nuestro Centro Comercial, no pudiendo permanecer ni retirarse de su interior ningún vehículo después de este periodo. Aparkaleku hau gure Denda ibi eta hamabost minutu beranduago arte egongo da zabalik; ordu horretatik aurrera, ezin izango da ibilgailurik laga ez atera.

ANTES DE RETIRAR SU VEHÍCULO PASE POR EL CAJERO AUTOMÁTICO, VEA CUADRO DE TARIFAS Y LIQUIDE ESTE TIQUE. DESPUÉS DE VALIDADO, INTRODÚZCALO EN EL RECEPTOR, PARA ABRIR LA BARRERA DE SALIDA. TIENE UNA VALIDEZ DE 15 MINUTOS, DESDE SU LIQUIDACIÓN.

V. 1 003 / 23789

AUTOMOBILA HARTU BAINO LEHEN, ZOAZ KUTXA UTOMATIKORA, BEGIRATU TARIFEN LAUKIAN ETA KITATU TXARTEL HAU. BALIDATU ETA GERO, SARTU TXARTELA HARTZAILLEAN KANPORAKO HESIA ZABALTZEKO. KITATU ETA GERO, 15 MINUTUKO BALIOA DAUKA

Bizkaiko herritarrak gida-baimena ateratzeko ikastaroa eta idatzizko azterketa euskaraz egin ondoren, azterketa praktikoa ezin izango zuela euskaraz egin jakinarazi zioten azterketa eguna baino hiruzpalau egun lehenago. Herritarrak azterketa euskaraz egiteko eskubideari eutsi eta Behatokiaren eta Getxoko euskara teknikariaren laguntza eta babesarekin gida-baimenaren azterketa praktikoa euskaraz egitea lortu zuen.

1. Apellidos / Abizmak 2. Nombre / izena  
 3. Fecha y lugar de nacimiento / Jaiozte-data eta -lekuak  
 4a. Válido desde / Baloiozina noiztik  
 4b. Válido hasta / Baloiozina noiz arte  
 4c. Autoridad expedidora / Eman duen agintaria  
 5. Número / Zerbakiak  
 10. Válido desde / Baloiozina noiztik  
 11. Válido hasta / Baloiozina noiz arte  
 12. Observaciones / Oharrak

Arakilgo herritarrak kontribuzioaren kobrantza-jakinarazpena euskaraz bidaltzeko eskaera egin zion udalari. Honek, kontribuzioaren jakinarazpena Nafarroako Gobernutik jasotzen dela eta erdaraz bidaltzen dutela erantzun zion. Herritarrak ez zuen amore eman eta hirugarrenean lortu egin zuen.

Arakilgo Udalak  
 Ayuntamiento de Arakil  
 I.F.K. / C.I.F.: P31225562

940 50 00 00  
 FAX: 940 50 00 00  
 www.arakil.net  
 ayuntamiento@arakil.net  
 Plaza de los Fueros, 4  
 30960. URZUTZUN

SAN JOAN KALEA

Arakil, 2014ko irailaren 16a  
 Arakil, a 16 de septiembre de 2014

2014. ekitaldiaren kontribuzio jakinarazpena  
 \*Notificación de contribución del ejercicio 2014

Zerbakiak: 525  
 Número: 525

Titularraren datuak / Datos titular:

Jarriain zeure izenaren dauden ondasunei emandako katastroko balioak eta kuotaak erakusten dizkizugu.  
 A continuación indicamos los valores catastrales y cuotas asignados a los bienes de su titularidad.

Hiri ondasunak:  
 Bienes urbanos:

Enpresa Estaldia	Katastroko erref. katalunak	Habitaketa Ziberrak	Xedea Dendak	U	Luzeak Paratuta	Quota Unitat	Robari Bant	Ex	Kota balio (€) V. zatiak (€)	part %	Quota (€) Cuota (€)	Kopuru Gramatikoa
HABAR	14-0032-01-0001	CL SAN JUANESAN JOAN KALEA Nº 16. B1	ETXERITZA	U	187,90	201,96			49.486,52		100,00	263,82
HABAR	14-0032-01-0002	CL SAN JUANESAN JOAN KALEA Nº 16. B1	TRASTELEGIA	U	187,90	4,50			208,07		100,00	1,84
HABAR	14-0032-01-0004	CL SAN JUANESAN JOAN KALEA Nº 16. B1	ATARIPEA	U	187,90	21,28			2.042,86		100,00	10,89
<b>GUZTIRAKOAK:</b>											<b>81.846,37</b>	<b>276,55</b>

QUOTAZKO KUOTA Euroak: 276,55  
 CUOTA TOTAL Euroak: 276,55

ERREZIBO HAU HELBIDERATUTA DAGO  
 ZURE BERTARTE BERTARTE DUGU  
 RECIBO DOMICILIADO  
 Lo descuentaremos de su cuota

Arakilgo ondasunen gutxiak dira eta balioak partaidetaren ehunekoari dagozkie.  
 Las superficies son las totales del bien y los valores los referentes al porcentaje de participación.

Ortut 1 / 1  
 Pagina 1 de 1

Adibide hauek erakusten dute hizkuntza- eskubideak exijitu eta euskaraz bizitzeko nahari erabakitasun irmoz heltzen dioten herritarren ahalegina. Traba guztien gaintetik euskaraz bizitzeko eginahala egiten duten euskaldunen emaitza dira. Nahiz eta administrazio eta entitateena den herritarren hizkuntza- eskubideen bermea eta hori praktikara eramateko ahalegina. Administrazioek ezin dute herritarrek egiten duten indarraren zain egon. Urraketak eragin ditzaketen egoerei aurre hartu eta prebentzio neurriak hartzea da euskaldunen eskubideak ziurtatzeko biderik eraginkorra.



euskaraz  
bizi  
nahi dut

euskaraz  
bizi  
nahi

euskaraz  
bizi  
nahi dut

euskaraz  
bizi  
nahi dut

euskaraz  
bizi  
nahi d



## 2. OSASUNGINTZA

Egunero milaka herritar artatzen dituen eta langile ugari biltzen duen sektorea da. Halere, herritarrek helarazten dizkiguten kexa eta bizipenek erakusten dutenez, zailtasunak eta oztopoak dira nagusi zuzeneko atentzio sanitarioa euskaraz jasotzeko eta baita sektoreko langileek euren jarduna euskaraz burutzeko ere.

Kontuan hartuta atal honek kexakopuru gehien izan duela, arrazoiak ere anitzak dira. Ahozko harremani dagokienez: familiako medikuarekin eta espezialistarekin, erizain zein pediatrekin, emaginarekin, larrialdietan

bai eta harrerako langileekin ere erdaraz aritu behar izatea; erditzea prestatzeko ikastaroak, erantzungailu automatikoetan eta telefono bidezko harremanetan gaztelaniari lehentasuna ematea, megafonia bidezko mezuak/oharrak erdara hutsean zabaltzea...


Idatzizko harremani dagokienez, errezetak, tratamendu-orriak, historia klinikoa, oharrak, errotuluak, gaixotasun bati buruzko jarraibideak eta beste hainbat idatzi gaztelania hutsez egotea eta jasotzea izan dira herritarrek atzeman dituzten hutsuneak eta agerian utzi dituztenak.

**Servicio Vasco de Salud - Osakidetza**  
Bidasoa Eskualdeko Ospitala  
Hospital Comarcal del Bidasoa  
Servicio de Traumatología

**HOJA INFORMATIVA**  
**ARTROSCOPIA DE RODILLA**

**¿Qué es la artroscopia?**

La artroscopia es un procedimiento quirúrgico usado por los traumatólogos para visualizar, diagnosticar y tratar problemas en las articulaciones. En su caso se le va a realizar una artroscopia en la rodilla. Esta hoja informativa va destinada a que conozca el procedimiento quirúrgico al que va a ser sometido.



Durante la cirugía artroscópica el traumatólogo hace una pequeña incisión en la piel del paciente y luego inserta un instrumento del tamaño de un lápiz, que contiene una pequeña lente permitiendo así al cirujano ver dentro de la rodilla y comprobar el estado de los cartílagos o ligamentos. El cirujano puede determinar la cantidad o el tipo de daño, y luego si es que es necesario reparar o corregir el problema.

La cirugía artroscópica, aunque es mucho menos agresiva que la cirugía abierta, todavía requiere el uso de anestesia y de un equipo especial en la sala de operaciones de un hospital. Usted recibirá un anestésico general o espinal, dependiendo del problema por resolver.

Después de la cirugía artroscópica, las pequeñas incisiones serán suturadas con un punto y cubiertas con un vendaje. Luego, usted será desplazado desde la sala de operaciones hasta un cuarto de recuperación. La mayoría de los pacientes necesitan solo una pequeña cantidad de medicación para el dolor.

El tiempo de recuperación van a depender de cada caso en particular dependiendo de la lesión hallada. La mayoría de los pacientes que reciben cirugía artroscópica no requieren ingreso y regresan a sus hogares unas cuantas horas después de realizada la artroscopia. Para ello nuestro hospital cuenta con una Unidad de Cirugía Sin Ingreso (UCSI).

**¿Cuáles pueden ser las posibles complicaciones?**


Aunque son poco comunes, las complicaciones ocurren ocasionalmente durante o después de la artroscopia: infecciones, flebitis (coágulos de sangre en las venas), un hinchazón excesivo o derrames de sangre o líquido sinovial, lesiones en los vasos sanguíneos o nervios, y roturas de los instrumentos. Estas son las complicaciones más comunes, pero ocurren en menos del 1% de todos los procedimientos artroscópicos y si aparecen pueden ser tratados de forma satisfactoria.

**DONANTE HASTA LA MÉDULA**

INFORMACIÓN PARA HACERTE DONANTE DE MÉDULA

Coordinación Trasplante Gipuzkoa	943 00 70 00
Coordinación Trasplante Araba	945 00 62 91
Coordinación Trasplante Bizkaia	94 403 36 91
Centro Vasco de Trasfusiones y Tejidos	900 30 34 04

Más información: [infodmo@osakidetza.net](mailto:infodmo@osakidetza.net)



## **EAEen ARAZOAK KONTSULTA OROKOR NAHIZ ESPEZIALIZATUAN**

Euskal Autonomia Erkidegoan herritarrei osasun asistentzia eskaintzen dien erakundeak, Osakidetzan, euskararen erabilera normalizatzeko 2013an onartu zen II. Euskara planean hori guztia jasota dagoen arren, oraindik agerikoak dira gabeziak. II. Euskara plan horren lehentasun nagusia den herritarrekiko ahozko zein idatzizko harremanetan euskararen erabilera bermatzeko orduan, dela harreran, dela kontsulta orokor nahiz espezializatuan, herritarrek arazoak izan dituzte euskaraz artatua izateko.

## **AHALDUNTZEAK EMAITZAK EKARTZEN DITU**

2014an Zarautzen, Zumaian, eta Muxikan gertaturikoa ekarri nahi dugu gogora. Euskara gaitasunik ez zuten mediku eta pediatrik jarri zituen Osakidetzak eta horrek herritar eta guraso taldeen erantzuna eragin zuen. Azkenean, Osakidetzak egoera konpondu eta mediku eta pediatria euskaldunak jarri zituen. Kasu hauetan, herritarrek egindako lanari esker lortu zen hasieran egindako kaltea konpontzea, euskalduna den beste mediku bat bidaliz.



Donostiako ospitalean ere pazienteek alta txostenak euskaraz eskatu dituzte, eta zuzendaritzak eskaerari aurre egin behar izan dio.

Baina euskaldunak ezin du etengabe eskatzen ibili. Ez luke ibili behar une oro eskatzen; gaixo bazaude, nahikoa duzu zure minarekin. Nola hasiko zara, esaterako, larrialdi zerbitzuan bazaude, euskarazko arreta eskatzen? Ez dira egoera atseginak. Administrazioak egoera horiek aurreikusi egin behar ditu.

## **PEDIATRIA ZERBITZUA: ENKISTATZEN ARI DEN EGOERA**

Beste behin, kezka eta larritasuna sortzen dute pediatria zerbitzuekin lotuta herritarrek adierazitako gertaerek:

*“Pediatria eta erizainarekin euskaraz ezin egitea eta itzulpen-lanak egin behar izatea mingarria da oso”.*

*“gure 7 urteko alaba, momentu batean, urduritu egin zen erdarazko erantzuna gaizki eman zuelako”.*



## **HAURRA BEHAR DUEN ATENTZIO SANITARIORIK GABE.**

Euskarazko artatze faltagatik, bada 2014an azaleratu den beste urraketa-egoera kezagarriak jaso dituen sail edo zerbitzu bat: haur-psikologiarena.


“Psikologoak ez zekien euskaraz eta, beraz, ezin izan da nire haurrarekin komunikatu. Gainera testa euskaratu gabe dago; ezin izan diote egin eta etxera joan gara”.

Larria da egoera, medikua euskalduna ez izatearen ondorioz haurra behar zuen atentzio sanitariorik gabe geratu baita. Bistan denez, mediku hori ez da bere lana ongi egiteko gai.

Egoera hauei aurre hartzeko, ezinbestekoa da hasieratik beharrezkoak diren neurriak hartzea. Horietako bat, zalantzarik gabe, langile elebidunak kontratatzea da.

Euskara ezagutzeko betekizunari ematen zaion garrantzia ez da nahikoa euskararen erabilera bermatzeko, ez da nahikoa euskara zerbitzu hizkuntza eta harreman hizkuntza izateko.

## PROFESIONAL EZ EUSKALDUNAK KONTRATATZEA KALTE HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN BERMEARI



Zentzu horretan salagarria da Osakidetzako Zerbitzu Erakunde ugaritan gertatzen ari dena. Langileren batek oporrak, baimenak edo bestelakoak baditu eta ordezkoren bat hartu behar bada, hiru eratako kontratuak egin

daitezke: bitartekoak, behin-behinekoak edo ordezkapenekoak. Bitarteko eta ordezkapeneko kontratuetan, hartutako ordezeko langileari baldintza jakin batzuk eskatu behar zaizkio hizkuntza irizpideei dagokionez. Behin-behineko kontratuak egiteko, berriz, ez dira baldintza horiek bete behar. Bitarteko edo ordezkapeneko kontratuak egin orde, behin-behineko kontratuak egitera jotzen dute Osakidetzako zerbitzu eta erakundeek, eta horrek araudia urratzen du sarritan.

Gogoratu behar dugu soilik lau langiletik batek duela egiaztatuta agindutako hizkuntza eskakizuna.

Euskaraz ez dakiten profesionalak kontratatzeak kaltea dakarkie herritarren hizkuntza-eskubideen bermeari eta eskaintako zerbitzuaren kalitateari. Urraketa sistematikoak eragiten dituzte.

Herritarrek egindako kexari emandako erantzunean Osakidetzak berak iradokitzen du gabezia: “ez da erraza, langileak %100 elebidunak ez direnean, erabat euskaraz emango den asistentzia antolatzea eta bermatzea”.

Euskara ez dakiten profesionalak kontratatzen badira: nola bermatuko dituzte profesional horiek euskaldunen eskubideak? Zentzugabea da langile berri ez euskaldunak kontratatzen jarraitzea, herritarren eskubideen urraketa betikotu egingo delako.

## BIEN BITARTEAN, ZERBITZUA EUSKARAZ EMATEKO TREBATUTA EZ DAUDEN PROFESIONALAK HEZTEN

Profesional eta langile euskaldunak gakoa izanik herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, medikuntza ikasketak euskaraz egiteko zailtasunak daudela salatu

dute EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza eta Odontologia fakultateko ikasleek. Ondorioz, euskaraz ikasteko eskubidea urratzeaz gain, egoera honek, Osakidetzaren euskalduntzea baldintzatu du zerbitzua euskaraz emateko trebatuta ez dauden profesionalak sortzen segitzen bada.

Egungo ikasle eta etorkizuneko osasun langile moduan, pazienteekin harreman hurbila garatzeko ezinbestekoa da horiek aukeratu duten hizkuntzan jarduteko gaitasuna izatea. Euskal Herritar moduan, euskaraz artatzeko eta artatuak izateko ezinbesteko eskubidea dagokigu.



## LAN-JARDUNA EUSKARAZ BURUTZEKO TRESNARIK EZ

Bestalde, Behatokiari jakinarazi diotenez, Osakidetzako langileek zailtasunak dituzte lan-jarduna euskaraz garatzeko. Lan tresna ugari erdara hutsean egoteak eragotzi egiten du lan hizkuntza euskara izatea: programa informatikoak, aplikazioak, intraneteko atal ezberdinak...

Osakidetzako langileei zuzendutako komunikazioekin (ikastaroen informazioa, ekitaldi baten aurkezpena...) eta sare sozialetan erdara hutsean agertutako kasuekin lotutako salaketak ere jaso dira Behatokian 2014an.

## EUSKARAZ ARTATUA IZATEA AHALBIDETUKO DUTEN NEURRIAK

Herritarren hizkuntza-eskubideen bermea eta euskaraz artatua izateko nahia ahalbidetuko duten hainbat neurri abiatu dira 2014an: ahozko harremanetarako pazienteen lehentasuneko hizkuntza zein den erregistratzeko aukera, profesional euskaldunak identifikatzea eta Historia Klinikoa elebiduna lan-taldea sortzea.

Ipar Euskal Herrian, beriz, Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskal Kostaldeko Ospitaleak hitzarmena sinatu zuten osasun zentroan euskararen erabilpena bultzatzeko. Honen arabera EEPk laguntza teknikoa emateko engaiamendua hartzeaz gain, euskal hiztunen eskubide linguistikoak bermatzeko nahikoa izango ez den 6.000 euroko laguntza ekonomikoa emango du.

Profesionalek egindako ahaleginari esker ere erradiografia baten emaitzak bi

hizkuntzetan jasotzea lortu da 2014an lehen aldiz. Erradiografia jatorriz ele bitan datorrenez, euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain, lan hizkuntza ere izateko urratsa eman da horrela.

Horiek, halere, ur tanta bat baino ez dira. Ez dira nahikoa osasun arreta euskaraz eskaintzen dela ziurtatzeko, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu ahal izateko eta lana euskaraz egin ahal izateko.

## **NAFARROAN ERE ARAZO LARRIAK OSASUN-ETXEETAN EUSKARAZ ARITZEKO**

Nafarroan Legeak eremu euskalduna deritzaneko herritarrei aitortzen dizkien eskubideak ere ez ditu bermatzen Osasunbideak eta, alde horretatik, eskubide-urraketa sistematikoa da. Bortzirietan, Baztanen, Leitza, Areso, Goizueta eta Basaburuan pediatra edota familia mediku euskalduna eskatuz ehunka eskaera egin dituzte herritarrek 2014an. Arazo larriak dituzte herritarrek osasun-etxeetan euskaraz aritzeko. Ez da euskarazko zerbitzurik bermatzen eta iluna da egoera.



Eremu euskalduna deitutakoan, osasun arloan 135 lanpostu publiko daude eta horietatik 38 plazatan (%28an) da nahitaezkoa euskara jakitea. Gogoratu behar dugu eremu honetan bizi diren %71 dela euskalduna.

Nafarroan Emakumeen arretarako zentro bakar batek ere ez du hizkuntza eskakizuna ezarria. Horietako hiru eremu euskaldunean daude: Etxarri Aranatz, Elizondo eta Burlatakoa. Hamasei langile ari dira, baina postuetako bakar batek ere ez du hizkuntza eskakizunik. Ondorioa argia da: ezinezkoa da horietan euskaraz artatua izatea.

Testuinguru honetan, errealitate hori guztiz gainditu nahirik, ahalegin berezia egin du UEMAk, hainbat eragile eta instituziorekin batera, herritarrek egindako eskaerei erantzun eta aferari konponbidea bilatzeko. Horrela, eskualde euskaldunenetan lanpostu guztiak elebidunak izan daitezkeen eskatu dute.

Basaburuko herritarrek egindako kexei erantzunez, berriz, Nafarroako Arartekoak gomendio zehatza egin zion Nafarroako Gobernuko Osasun sailari “zonalde horretako herritarrek euskaraz artatzeko gaitasuna izango duten langileak egongo direla ziurtatzeko behar diren aldaketak egiteko” eskatuz.

Eremu mistoa eta ez euskalduna deitutako zonaldeetan herritarrek oso zaila edo ezinezkoa daukate osasun asistentzia euskaraz jaso eta bertako langileekin euskaraz komunikatzea.

Zori kontua da mediku edo erizain euskalduna suertatzea. Ez dago osasun zerbitzuak euskalduntzeko planik.



KULTURA

PUSKARAZ

PUSKARAZ  
KIZI

# 3.HERRIZAINGOA/SEGURTASUNA

Ertzaintzaren azken lan-deialdi berria iragartzeko irrati, telebista, eta prentsa idatzi nahiz digitalean sarritan ikusi edo entzun dugu “Egin zaitez ertzain. Zure etorkizuna” iragarkia.

Iragarkiak honela dio hitzez hitz euskarazko bertsioan:



*“Oso polita da lan hau, bai gizonetzkoentzat eta bai emakumeentzat ere. Oso pozik nago ertzaina naizelako, eta beti saiatu izan naiz gertukoa izaten kalean, laguntzeko prest beti. Eta uste dut hala garela, jendeak nahi zuen ertzaintza”*

Iragarkian, herritarrengandik hurbil dagoen Ertzaintza irudikatzen da, beti laguntzeko prest dagoena; baina egunerokoan, hain adeitsu eta gertukoak dira ertzainak euskal hiztunekin?

Herritarrek Hizkuntz Eskubideen Behatokiari 2014 urtean helarazitako kasuek Ertzaintzaren oso bestelako irudia deskribatzen dute.

*“Durangoko ertzain etxera bertaratu nintzen salaketa bat egitera. Artatu ninduen agenteak*

*euskaraz egin zidan, baina salaketa gaztelaniaz idatzi zuen. Euskarazko kopia eskatu nion, eta orduan epaitegietan arazoak besterik ez dizkidala ekarriko adierazi zidan”.*

*“Ertzaintzak kontrol batean geldiarazi ninduen Bergaran, AP1 autopistako irteeran eta euskaraz zuzendu nizkien lehen hitzak. Jarrera aldatu eta erdaraz hasi ziren, euskararekiko amorrua erakutsiz. Egoera okertzen joan zen, baina hala ere euskaraz hitz egiteko eskatu nien. “Tienes que saber español. Por tonterías como el euskera no la vamos a liar” eta gisako komentarioak egiten hasi ziren. Isildu egin nintzen giroa gaitzotzen ari zela ikusita. Ahalik eta azkarren atera nahi nuen handik. Bigarren mailako herritar sentiarazi ninduten.*

*“Gaur arazoak izan ditut ertzainen patruila batekin mesedez euskaraz hitz egiteko eskatu diedanean. NO!! ozen batekin erantzun didate. Nire eskubideak urratzen ari zirela eta nirekin euskaraz hitz egiteko eskatu diet berriz ere. Orduan ni eta nirekin zegoen pertsona identifikarazi gaituzte”.*

## **IRAGARKI BAT BAINO ZERBAIT GEHIAGO BEHAR DA EUSKALDUNEK ERTZAINZA HURBILEKO SENTI DEZATEN**

Iragarki bat baino zerbait gehiago beharko du Ertzaintzak herritarrek hurbileko senti dezaten. Ez dirudi, ordea, hizpidea eman digun lan deialdiko hizkuntza irizpideak horretarako egokienak direnik.

Deialdiaren helburua 8.000 poliziako taldeari eutsi eta Ertzaintzaren adin-piramidea modu ordenatuan eta mailakatuan berritzen jarraitzea omen da. Horretarako, oinarrizko eskalako agente izateko 250 lanpostu eskainiko dira. Lanpostu guztiek 1. hizkuntza-eskakizuna izango dute (Europako B2 maila), baina 125 lanpostutan soilik egiaztatu beharko da eskatutako euskara maila lanpostua hartzerakoan. Beste 125 lanpostuetan euskara merezimendu gisa baloratuko da, eta 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe lanpostua eskuratu dutenei epe bat emango zaie euskara-maila hori lortzeko.

Ez da esaten, ordea, maila eskuratu ezean zer ondorio izango lituzkeen, ez eta lanpostua hartu eta eskatutako euskara-maila egiaztatzeke emandako epean 45 urte betez gero agenteak euskara jakin beharretik salbuetsita gera daitezkeenik. Horrek euskararen normalizazioan atzeratuenetakoa dugun Ertzaintzaren euskalduntze prozesua motelduko du, eta hizkuntza-eskubideen bermea eragozten jarraituko du.

## **AGENTE ELEBIDUNAK ERTZAINZAREN FUNTZIOAK EGOKI BETETZEKO**

Administrazioaren eraginkortasunaren ikuspegitik begiratuta, lanpostuak

hornitzeko prozeduretan aplikatzen diren hizkuntza-irizpideak ez dira batere egokiak. Euskara eta gaztelania, biak hizkuntza ofizialak izanik, soilik agente elebidunek dute gaitasuna dagozkion funtzioak egoki betetzeko eta herritarrei eman beharreko zerbitzua haien aukerako hizkuntzan bermatzeko.



Euskaraz ez dakiten agenteak kontratatzeak, aldiz, kaltea dakarkie hizkuntza-eskubideen bermeari, eskainitako zerbitzuaren kalitateari, eta agenteak euskalduntzen inbertitu beharreko baliabide ekonomikoari. Are gehiago, herritarrek helarazi dituzten kexetan ikus daitekeen moduan, agenteei eskatutako zaien euskara-maila (1. HE = Europako B2 maila) herritarrei euskarazko zerbitzu integrala bermatzeko aski ez dela ikusita. *“Euskaraz badakit, baina ez salaketa euskaraz idazteko bezainbeste”* izan ohi da erantzuna.

Kezkarako beste puntu bat deialdi honek dakarren berritasuna da. Izan ere, oposizioa gainditu baina lanposturik lortu ez duten pertsonak aukera izango baitute bitarteko udaltzainen zerrendan izena emateko. Horrela, prestakuntza ikastaroa amaitzean, udaltzainen lan poltsa horretan sartuko dira eta urte-sasoiko lanpostu hutsak bete ahalko dituzte euskal udalerrietan. Hala bada,



deialdiak Ertzaintzarako ez ezik, udaltzain lanpostuetarako sarbidea eskaintzen du, eta ondorioz, hizkuntza ikuspegitik desegokia den irizpidea udaltzain lanpostuetara hedatzen.

## GORABEHERAK BESTE SEGURTASUN KIDEGOETAKO AGENTEekin

Kexa gehien eragin dituen kidegoa Ertzaintzarena izan bada ere, beste segurtasun kidegoetako agenteekin izandako gorabeherak ere salatu dituzte herritarrek, hala nola, Espainiako poliziarekin, Gasteizko Udaltzainekin eta Renfeko nahiz Lanbideko segurtasun zaindarekin. Kasu guztietan, herritarrek jasotako tratua zakarra eta euskararekiko mespretxuzkoa izan da: *“Guarda esas consignas para tus mítines”, “yo soy madrileño y el euskara me la suda”, “arreglátelas tu”, “¿Quéeee? ¿Qué me estás diciendo?, ¡va y me habla en euskera!” “Tú eres el vasco ¿no?” “Prefiero hablarte en inglés, lo domino mejor. De todos modos el castellano es lengua oficial y tengo derecho a hablarte en castellano. Además tu tienes el deber de saber castellano”, “¿Con quien cojones quieres hablar?”... eta gisakoak entzun dituzte herritarrek euskaraz egiteagatik.*

Hizkuntz Eskubideen Behatokian 2014 urtean jaso ditugun kexek erakusten dutenez segurtasun kidegoetan gaztelania da lehentasunezko hizkuntza eta berme osoa duen bakarra.

**MINISTERIO DEL INTERIOR**  
DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO

Nº EXPEDIENTE 25      FECHA HORA  
3185800000      02/04/14 16:21

JEFATURA DE TRÁFICO NAVARRA

PRECEPTO INFRINGIDO      Artículo      Apartado      Puntos a detraer  
100C      52      1      0

CIR R.O. 1428/2003      Punto Km      Con dirección a  
LUGAR DE DENUNCIA      0011,200      CRICENTE

Vía N240A      Importe multa      Importe con reducción 50%      Fecha límite pago con reducción 50%  
300C      300C      150C      22/04/14

**HECHO DENUNCIADO**  
CIRCULAR A 99 KM/H ESTANDO LIMITADA LA VELOCIDAD A 80 KM/H. ESTE VEHICULO EN EL CIRCULO DE REGISTRO MUESTRA DEL VELOCIDAD PROTOTIPO FUE APROBADO POR INDUSTRIA ENERGIA Y TURISMO DE LA DIRECCION GENERAL DE INDUSTRIA ENERGIA Y TURISMO (D.G.I.E. NÚM. 150 DE 02/04/2014) PRIMERA PROBABILIDAD PARA LA ADAPTACION DE MANEJO EN CUENTA LOS MARGENES DE ERROR ADMITIDOS REGlamentariamente.

Matrícula      Clase  
TURISMO

DNI, NIE, DOY      Fecha de nacimiento      Clase  
B

Familia      CP

DNI, NIE, DOI      Nombre y Apellidos

Domicilio      Localidad      Provincia      CP

**TENGA EN CUENTA:**  
Iniciación del procedimiento: El procedimiento queda iniciado por la denuncia que se le ha notificado (artículo 73.2 Ley Seguridad Vial). En el reverso de esta denuncia encontrar más información al respecto.  
Pago con reducción del 50%: vea información en el reverso  
En la página [www.dgt.es](http://www.dgt.es) puede recibir información de trámites y conocer el estado de las carreteras

**DENUNCIA RECIBIDA POR RADIOTELEFONO**

**OBSERVACIONES SIN ALEGACIONES EXISTE PRUEBA FOTOGRAFICA**

DE A7 DE NC FI MA

MINISTERIO DEL INTERIOR      DGT

MATRÍCULA      Datos a fecha: 10/11/2014

Información del Vehículo

**DATOS DEL TITULAR**

Nombre y apellidos      DNI/NIE:

Calle y número

Localidad, Municipio      BILBAO

Código Postal      Provincia      BIZKAIA

**DATOS TÉCNICOS DEL VEHICULO**

Fecha de 1ª matriculación	Marca	Modelo
17/06/2005	RENAULT	
Bastidor	Combustible	Kilometraje
VEIKCE7EF3955170	DIESEL	97873
Tipo de vehículo	Nivel de emisiones	Potencia Fiscal
VEHICULO MIXTO	EURO 3	11.02
ADAPTABLE		Plazas
Servicio al que se destina		5
PARTICULAR		

Inspección Técnica del Vehículo  
No consta en el Registro de Vehículos que el vehículo haya superado la ITV periódica. Compruebe que su ITV no está caducada desde el 02/09/2014.

**SITUACIÓN ADMINISTRATIVA DEL VEHICULO**

Domicilio fiscal del vehículo  
Calle y número

Localidad, Municipio      BILBAO

Código postal      Provincia      BIZKAIA

**SEGURO**      Su vehículo consta asegurado por SEGUROS LAGUN-ARO S.A.



## EUSKARAK SEGURTASUNARI TRABA?

Bide-segurtasunaren arloan ere erdarak dira hizkuntza nagusia administrazio maila guztietan. Euskarak segurtasunari traba eginen balio bezala jokutzen da askotan: isunak, jakinarazpen idatziak, informazio kanpainetako gutunak, herritarrei zuzendutako ohar idatziak, kartelak gaztelania hutsean idatzita egotea izan dira zio nagusiak. Gidabaimenaren kasuan gainera, Europako eredu ezarri zenetik atzerapausoa eman da hizkuntzaren arloan, garai batean ele bietan idatzita zeudenak gaur gaztelania hutsean baitaude.

Erkidegoko kidegoetara etorrira errepideetako eta kaleetako obren berri emateko seinaleetako ohar idatziak izan dira kexa gehien eragin duten zioa eta Bizkaiko Foru Aldundia, Gasteizko Udala eta Iruñeko Udala kexa hartzaile nagusiak.

Ildo beretik, euskal toponimoak baztertu eta erdarazkoak soilik dituzten seinaleak ugari dira oraindik euskal errepideetan, EAEn, Nafarroan nahiz Ipar Euskal Herrian.



Segurtasun alorreko administrazio mailako jardunari dagokionez, Espainiako polizia eta defentsa ministerioaren kasuan, ahozko zerbitzuak, herritarrek betetzeko inprimakiak, txartel makinetako hizkuntzak, errotuluek, prentsako iragarkiek, erakusten dute lehentasunezko hizkuntza gaztelania dela.

Herritarrek maiz salatzen duten beste gertaera bat euskara hutsean idatzitako agiri ofizialak ez onartzea da, DNIA tramitzeko eskatzen duten jaiotze-agiria esaterako. Euskara ofiziala izanik euskara hutsean egonik ere balio osoa duten agiriak dira, baina Madrilerara bidali beharra aitzakia jarrita (han euskara ez da ofiziala) gaztelaniazko itzulpena behar dutela diote.

Gezurra dirudien arren, herritarrek nortasun agiri, gidabaimen eta antzeko dokumentuetan euskal izenen grafiak errespetatzen ez zaizkielako kexa egiten jarraitzen dute oraindik ere. Hala, Donibane Lohizuneko herritarrak ezin izan zuen nortasun agiria berri programa informatikoak ez zuelako bere deiturako ñ hizkia onartzen. Aldiz, pasaportearen egiterakoan ez zioten inolako trabarik jarri deitura ñ-z idazteko

MINISTERIO DEL INTERIOR  
DIRECCIÓN GENERAL DE LA POLICIA  
JEFATURA SUPERIOR DE POLICIA DE NAVARRA DNI / PAMPLONA

En la Oficina de DNI y Pasaportes de Pamplona, y en presencia del funcionario destinado en la misma con documento de identidad profesional \_\_\_\_\_

**COMPARECE** D/D<sup>a</sup> \_\_\_\_\_ nacido/a el día \_\_\_ de \_\_\_ de \_\_\_ en \_\_\_\_\_ ( \_\_\_\_\_ ), hijo/a de \_\_\_\_\_ y de \_\_\_\_\_, con domicilio en la calle \_\_\_\_\_ nº \_\_\_ piso \_\_\_ de la localidad de \_\_\_\_\_ ( \_\_\_\_\_ ), con Documento Nacional de Identidad nº \_\_\_\_\_, expedido el día \_\_\_ de \_\_\_ de \_\_\_ en \_\_\_\_\_ ( \_\_\_\_\_ ), y MANIFIESTA:

**QUE CONCEDE AUTORIZACIÓN** para que su hijo/hija nacido el día \_\_\_ de \_\_\_ de \_\_\_ en \_\_\_\_\_ ( \_\_\_\_\_ ) **PUEDA VIAJAR AL EXTRANJERO provisto de su DOCUMENTO NACIONAL DE IDENTIDAD** nº \_\_\_\_\_ expedido el día \_\_\_ de \_\_\_ de \_\_\_ en \_\_\_\_\_ ( \_\_\_\_\_ ).

Y para que conste, firmo la presente autorización en Pamplona, a \_\_\_ de \_\_\_ de \_\_\_\_\_.  
FIRMA DEL FUNCIONARIO Y SELLO  
FIRMA DEL COMPARECIENTE

*Esta autorización CADUCA a los 90 días*



30/08  
AF-672-LH

Liberté • Égalité • Fraternité  
REPUBLIQUE FRANÇAISE

**INFORMATION**

Une infraction à la réglementation du stationnement a été relevée à votre rencontre.

Vous allez prochainement recevoir par courrier, à l'adresse figurant sur le certificat d'immatriculation du véhicule, un avis de contravention. Sur cet avis sont indiquées les modalités de paiement d'une part, et de contestation éventuelle d'autre part.

Aucune réclamation ne pourra être prise en compte, si elle n'est pas accompagnée de l'avis de contravention que vous allez recevoir.



POULOUREN GORROTOAK EZ DU MUGARIK,  
EUSKALTZALEON KEMENAK ERE EZI!  
GUK ESKOLA EUSKALDUNA!

Euskal herrian euskaraz 

KASTOLAK



## 4. HEZKUNTZA

Hezkuntza euskalduna jaso nahi duten euskal herritarrek, maiz oztopoak aurkitzen dituzte hezkuntza sistemako hainbat mailatan (Haur Hezkuntza, Derrigorrezko Hezkuntza, Lanbide Heziketa, Kolegioa, Lizeoa, Unibertsitatea), Hizkuntz Eskubideen Behatokia heldutako kekek agerian uzten duten moduan.

### DISKRIMINAZIOAREN AURPEGIAK NAFARROAN

Nafarroako Gobernuak euskal hezkuntzarekiko duen jarrera baztertzaila ezaguna da. Vascuencearen Legearen interpretaziorik mugatuena egin eta euskarazko irakaskuntza publikoa lurraldearen eremu batzuetara mugatzen du. Horrela, Nafarroako eremu “ez-euskaldunean” D ereduan ikasi nahi duten ikasleek milaka kilometro egin behar izaten dituzte euskaraz ikasi ahal izateko.



Euskarazko irakaskuntza publikoa lurraldearen eremu batzuetara mugatzen duen Euskararen Legea aldatzeko lehen urratsa eman zuen Nafarroako Parlamentuak 2014an. Aldaketa hori zein

baldintzetan garatuko den ikusteke dagoen bitartean, ehunka familien egoerak zaila izaten jarraitzen du oraindik: herri batetik besterako bidaiak, gastuak...

### IRUÑEKO UDALA HAUR ESKOLETAKO GURASOEI EZINEGON GEHITUA ERAGITEN



Iruñeko haur eskola publikoen euskarazko eskaintza urriak ere arazo handiak eragiten ditu. Azken urteetan haur eskoletako lekuak gehitu diren arren, euskarazko lekuek bere horretan jarraitzen dute.

Txantrean dauden euskarazko bi haur eskola bakarretatik bat Arrotxapeara eraman dute 2014an, baina toki kopurua ez da aldatu. Iruñeko haur eskoletan dauden 1399 haurretatik 164k besterik ezin izan dute euskaraz ari eta 466 familia seme-alabak euskaraz matrikulatzeko aukerarik gabe geratu dira.

Nafarroako Gobernuak euskal hezkuntzarekiko duen jarrera baztertzaila bertatik bertara egiaztatu ahal izan zuten Eunate eta Biurdanako institutu etako hamar ikaslek.

Frantsesezko truke programa batetik baztertu zituen Nafarroako Hezkuntza Departamentuak, D ereduko ikasleak izateagatik. Baldintza guztiak betetzen zituzten, baina gobernuak gaztelaniazko ereduetaiko ikastetxeekin adostu zuen truke programa.

## HELDUAK ERE MUTUTU NAHIAN

IKA eta AEK euskaltegiek 2012ko urriaz geroztik ez dute euro bakar bat ere jaso Nafarroako Gobernuak aurrekontuetatik. Diru-partida izan bazen helduen euskalduntzerako, baina, dirurik ez dagoela argudiatuta babes ekonomikorik gabe ari dira aurrera egiten.

Nafarroako Gobernuak euskara eta



euskal kultura zokoratzeko obsesioaren beste adibide bat Jose Iribas Hezkuntza Kontseilariak euskara eta literatura ikasgaiko 22 liburu erretiratzeko agindua eman izana da. “Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez zutelako” agindua betetzeko ikuskatzaileak igorri zituen ikastetxeetara.

## ZIBURUKO KASKAROTENEA IKASTOLA ARGIRIK GABE ETA ISUNA ORDAINTZEN

Ipar Euskal Herrian, berriz, Beskoitze eta Hendaiako ikastolek pairatutako jazarpenari jarraikiz, Ziburuko ikastolaren

egoera kinka larrian jarri du Guy Poulouk Ziburuko auzapezak.

Hauteskundeak baino lehen eraikin



publikoa emanen ziela agindu bazien ere, ondoren baimen hori ukatu eta ikasle eta irakasleak bertatik bota nahi izan ditu hainbat neurri abian jarritz; argindarra moztu, isunak, auziak, hezkuntza arduradunei presioak, frantses administrazioari ikastetxea ixteko eskaerak, e.a.

Beste urte batez, ikasle euskaldunek ez



dute Baxoa euskaraz egiteko aukerarik izan. Historia-geografia eta matematika besterik ezin izan dute egin euskaraz ikastaldi guztia hizkuntza horretan egin duten ikastoletako ikasleek eta eredu elebidunean ari direnek. Gainontzeko guztia frantsesez osatzera behartuta daude.

## EAEn TRABAK LANBIDE HEZIKETAN ETA UNIBERTSITATEAN

EAEn zailtasunak dituzte hainbat euskal ikaslek. Ikastetxe publiko zein itunpekoen 2014-2015 ikasturterako Lanbide Heziketako eskaintzan euskarak ez duela tokirik salatu dute hainbat herritarrek. B eredua programa pilotu gisa sortzearen ondorioz, esaterako, euskaraz izena eman duen ikaslea, markatutako ratioak betetzen ez badira, gaztelaniaz ikastera derrigortuta dago. Eta ikasketa guztiak euskaraz egin dituzten ikasleentzat kezka iturria da, jakinarazi izan digutenez.




Euskal Herriko Unibertsitatean ere zenbait karreretako ikasleek traba ugari dituzte euskarazko ikasketak egiteko. Zuzenbideko ikasleek, esaterako, behin gradua amaituta egitera derrigortuta dauden Abokatutza Master osoaren %38 baino ez dago bermatuta euskaraz. Horrez gain, abokatutza masterraren amaieran egiten den estatu mailako azterketa gaztelaniaz soilik eskaintzen da. Legearen arabera Autonomi Erkidego bakoitzak antolatu dezake azterketa hau. Oraindik, baina, ez da pausoa eman.

Medikuntza ikasketak egiteko, berriz, lehen zikloa euskaraz egin badaiteke ere, egoera guztiz aldatzen da bigarren ziklora pasatzean. Euskal lerroan matrikulaturik

egon arren, oztopoak daude ikasgaiak euskaraz jasotzeko eta praktika eta mintegi gehienak gaztelaniaz jasotzen dituzte.

EHUk uda partean eskaintako ikastaroen artean, euskal ikasleek aukera gutxi izaten dute euren prestakuntza euskaraz osatu ahal izateko, eskaintza osoaren %16 besterik ez baita euskaraz eskaintzen.



Eremu pribatuan, kasu batzuetan diru laguntza publikoak jaso arren, ohikoak dira hizkuntza urraketak; Basque Culinary Center bezalako ikasketa zentro ospetsuan gaztelaniaz eta ingelesez baino ezin da ikasi. Eta webgunea hiru hizkuntzatan egon arren, euskarazkoan sartuz gero, hainbat atal gaztelania hutsean daude; baita euren FB orrialde eta twitterreko profila ere.





# 5. JUSTIZIA



Hizkuntza-eskubideak urratu dizkietelako herritarrek ondoko erakundeei zuzentzen dizkiete keak: Justizia Ministerioari, herrialdeetako zenbait epaitegiri, zenbait herritako Erregistro Zibil eta Bake Epaitegiri, zenbait merkataritza erregistrori eta merkataritza epaitegi bati.

Kexa gehienek idatzizko erabilerarekin dute zerikusia: azterketa euskaraz egiteko

aukerarik ez izana, epaia euskaraz jaso ez izana prozedura euskaraz izatea nahi zuela idatziz adierazia zuen arren, euskaraz jardutea eragotziko duten erabakiak hartu izana, abizena euskal grafiaz jartzeko oztopoak gaintitzen ibili beharra, izapidea euskaraz burutu ezina, inprimakia euskaraz ez egotea edo ediktua euskaraz argitaratu ez izana izan dira kexen arrazoiak.

Sección: B

JDO. CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO Nº 2  
 c/ San Roque, 4 - 5ª Planta  
 Pamplona/Iruña  
 Teléfono: 948.42.42.67  
 Fax: 948.42.42.75  
 Tlx: 7000

Procedimiento: **PROCEDIMIENTO ABREVIADO**  
 Nº Procedimiento:  
 NIG: Materia: Función pública  
 Resolución: Sentencia.  
 Procedimiento Ordinario 0000.

Intervención:	Interviente:	Procurador:	Abogado:
Demandante			
Demandado	DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR DE GOBIERNO DE NAVARRA		LETRADO DE LA COMUNIDAD FORAL NAVARRA

**SENTENCIA NÚM.**

En Pamplona/Iruña, a \_\_\_\_\_ de octubre de 2013.

El ilmo. Sr. D. ANTONIO SANCHEZ IBÁÑEZ, Magistrado-Juez DEL JDO. CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO Nº 2 DE PAMPLONA/IRUÑA, ha visto los autos de Procedimiento Abreviado promovido por \_\_\_\_\_ representados y defendidos por la procuradora Dña. \_\_\_\_\_ y por el letrado D. \_\_\_\_\_ contra DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR DE GOBIERNO DE NAVARRA representado y defendido por LETRADO DE LA COMUNIDAD FORAL NAVARRA, en materia de Función Pública.

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.**- Con fecha \_\_\_\_\_ de enero de 2012 por el Juzgado Decano de los de Pamplona, se remitió el Procedimiento Ordinario n.º \_\_\_\_\_ procedente de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra, al haberse declarado el mismo incompetente por Auto de inadmisibilidad de fecha de diciembre de 2011 y por el que se interponía recurso contencioso-administrativo contra la resolución de \_\_\_\_\_ Jefe Consejero de Presidencia, Justicia e Interior, de \_\_\_\_\_ de noviembre de \_\_\_\_\_ y contra la Resolución \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de septiembre de 2010 en el B.O.N., referente a Directores Gestores de los Institutos de las Administraciones Públicas por

**Solicitud DE CERTIFICACION PARA LA OBTENCION DE FIRMA DIGITAL para la representación de la Sociedad ante el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia o ante la Agencia Tributaria**

**DATOS DEL SOLICITANTE:**  
 Don/Doña \_\_\_\_\_ con domicilio en \_\_\_\_\_, municipio \_\_\_\_\_, mayor de edad, provisto de D.N.I. Nº \_\_\_\_\_, con teléfono \_\_\_\_\_ y correo electrónico (email) \_\_\_\_\_ y con dirección en nombre y representación de \_\_\_\_\_

**EXPONE:**

Que le interesa acreditar determinadas circunstancias relativas a la compañía mercantil denominada \_\_\_\_\_ con N.I.F. nº \_\_\_\_\_ (indicarlo si se conoce).  
 Por lo que SOLICITA le sea expedida certificación acreditativa de los siguientes extremos: (marcar lo que proceda):

DATOS REGISTRALES DE LA CONSTITUCIÓN/PERSONALIDAD JURÍDICA/VIGENCIA.

Y que con el fin de obtener la firma digital de la Administración Tributaria se acredite de igual forma que DON \_\_\_\_\_ ostenta el cargo de \_\_\_\_\_ en el Organismo de Administración de la sociedad.

que con el fin de obtener la firma digital de la Administración Tributaria se acredite, de igual forma que es apoderado de la sociedad DON \_\_\_\_\_, que le fue conferido en la siguiente escritura \_\_\_\_\_ y que motivó la inscripción número \_\_\_\_\_ en el Registro Mercantil. Bilbao a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2.0\_\_.

FIRMA DEL SOLICITANTE

LA PRESENTE CERTIFICACION PODRA SER RETIRADA EN EL REGISTRO MERCANTIL DE BIZKAIA (AV. MADARIAGA Nº 24-3ª PLANTA-BILBAO 48.014) EN EL PLAZO DE CINCO DIAS HABLES CONTADOS DESDE LA FECHA QUE SE PRESENTE ESTA SOLICITUD EN EL REGISTRO MERCANTIL. De acuerdo a los efectos de la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de carácter personal queda informado de que: el responsable es el registrador y con este y no del empresario es el presente documento en el momento de su inscripción en el Registro Mercantil, o en el momento de su inscripción en el Registro de Comercio, o en el momento de su inscripción en el Registro de la Propiedad registral (arts. 2.4.8 y 12 del R.D. de 10 de octubre de 1986 y del 17 de febrero de 1988). 2.- En cuanto resulte compatible con la legislación específica del registro, se reserva a los interesados los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición establecidos en la Ley Orgánica citada pudiendo ejercitarlos dirigiendo un escrito a la dirección del Registro. 3.- La obtención y tratamiento de sus datos en la forma indicada, es condición necesaria para la prestación de estos servicios.

## PROZEDURETAN EUSKARAZ JARDUTEKO OZTOPOAK

Arlo honi buruz egiten dugun irakurketa ondorengoa da: Justizia arloan “egiturazko arazoa” dago egun. Espainiako eta Frantziako autoritateek dute justiziaren eskuduntza eta 2014an ez dute “arazo estruktural” hori konpontzeko beharrezkoa den lege erreformarik egin edota neurri eraginkorrik hartu.

Espainiako Gobernuak, gainera ez ditu Euroituneko zenbait konpromiso bete ere egiten. Izan ere, Estatuak ez du ziurtatzen jurisdikzio-organoek prozedura erregio edo gutxiengo hizkuntzan tramitatuko dela alderdiren batek hala eskatu badu ere.

Are okerrago, euskaraz jarduteko berariaz eskatu behar da eta propio eskatuta ere, eta Justizia Administrazioaren aurrean euskara baizik erabili ez arren, erantzunak gaztelania hutsean jasotzen dira maiz, euskaraz jarduteko oztopoen aurrean aurkitzen dira herritar eta profesionalak eta prozedurak ez dira euskaraz izapidetzen.

### EAEEn eta NAFARROAN ITZULPENAREN MENPE



EAEko eta Nafarroako Foru Erkidegoko auzipetuek euskara erabil dezakete, baina, beti ere, itzulpenaren menpe

edo itzultzailearen bidez jardunez gero soilik eta, gainera, balio juridikoa duena gaztelaniara eginiko itzulpena izaten da. Itzulpen edo interprete sistema erabiltzeak herritarreikalte-ondorioak ekartzen dizkie, maiz ez baitira itzulpenak behar bezala egiten eta ñabardura asko galtzen baitira. Gainera, praktikan euskarak Justizia Administrazioan hizkuntza ofizialaren tratamendurik ez duela nabarmen uzten du, eta ez da epaile, idazkari, langile edo ministerio fiskaleko hizkuntza-gaitasun gabezia konpontzeko irtenbide egokia.

Euskaraz idatzitako agiriak izapidetu edo onartzen badira ere, prozedura ez da gaztelaniazko itzulpena jaso arte abiatzen eta ez aurkezten den unean berean. Beraz, ez dago aukerarik edozein prozedura mota (penala, zibila, administratiboa, etab.) hasieratik amaiera arte euskaraz egiteko, gaztelaniaz izapidetzen baitira.

### HIZKUNTZA BAT EDO BESTEA HAUTATZEKO EGOKIERA IZATEA ZENTZUZKO AUKERA

Botere Judizialaren Lege Organikoak (BJLO) prozeduretako hizkuntza moduan gaztelania aurreikusten du. Horrek ez du esanahi gaztelania ez diren bestelako hizkuntza ofizialak erabili ezin direnik, baina praktikan horrela da.

Beraz, EAEko Arartekoaren hitzak gure eginaz, normalizazioa ez datza euskara gehiago edo gutxiago erabiltzean, baizik eta “*hizkuntza ofizial bat edo bestea hautatzea zentzuzko aukera askea izatea lortzea da kontua*”. Gaur egun euskara erabiltzea “*zenbait mugak eta kostuk baldintzatzen dute.*” EAEko Arartekoak esana duen bezala, “*euskaldunek beren hizkuntz eskubideak betetzeko dituzten arazoetan, gure ustez, ez dago herritarren irudipen subjektiboa, errealitate objektiboa eta egiaztagarria da.*”

## **“AUZIA EUSKARAZ” JUSTIZIA ALORREKO EUSKARAZKO LEHEN KOMUNITATEA**



Dagoen hutsuneaz ohartuta, *“auzia euskaraz”* programa onartu zuen Eusko Jaurlaritzak 2013an, EAEko Justizia Auzitegi Nagusia eta Fiskaltzarekin adostuta. Helburu nagusitzat *“auziak osorik euskaraz izapidetu ahal izatea EAEko edozein epaitegitan”* du.

Horretarako justiziaren alorreko euskarazko lehen komunitatea sortu nahi da eta Jaurlaritzak lanerako euskarazko erreminta guztiak emango dizkie komunitate horretako kide izan nahi duten profesional juridiko guztiei.

- ☒ Profesionalen artean euskararen erabilera indartzea
- ☒ Epaile, idazkari eta fiskalen parte-hartzea bermatzea
- ☒ Bulego judiziala euskaraz hobeto lan egiteko prestatzea
- ☒ Dokumentu ereduak euskaraz zein gaztelaniaz egokitzen jarraitzea
- ☒ Operadorentzat aplikazio informatiko egokiak sortzea
- ☒ Legeak itzuli, eguneratu eta eragileentzat eskuragarri jartzea
- ☒ Hizkuntza-normalizazioko lantaldearen zerbitzua hobetzea

Ikusteke dago aipatu programak aurreikusitakoa betetzen ote den, zein mailatan, eta nolako eragina duen euskararen erabilera EAEko Justizia Administrazioan normalizatzeko bidean. Edonola ere, azpimarratu behar dugu aipatu programak ez duela gutxieneko edo bitarteko helbururik eta eperik zehazten.

## **LANGILEEN GAITASUN LINGUISTIKOA NAHIKOA EZ**

Herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzeko beste bi bideren zain jarraitzen dugu: epaitegi euskaldunen zirkuituak osatzea edota epaitegietan jardungo duten aktore guztiek euskaraz jakitea.

Jabetza Erregistro edo Merkataritza Erregistroak, Justizia Ministerioaren menpekoak dira eta azpimarratu behar dugu euskararen presentzia eta erabilera hutsala dela, zerbitzua ez delako euskaraz eskaintzen eta langileek ez dutelako hizkuntza gaitasun nahikorik beraien lana euskaraz burutu edo garatzeko.

## **OFIZIALTASUNAREN BALIOA AUZITAN**

Bestalde, abokatutzan jarduteko master berezitu bat burutu eta gainditu beharra dago abokatuen elkargoetan kolegiatu ahal izateko eta abokatu bezala aritu ahal izateko. Egun eskaintzen ari diren master guztietatik ez dago bakar bat ere euskaraz denik, ezta unibertsitate publikoak abokatuen elkargoen elkarkidetzaz eskaintzen dituenak ere. Beraz, zuzenbide ikasketak euskaraz egin ahal izan dituenak eta masterra euskaraz egin nahi duenak, ez dauka aukerarik.

Horrez gain, masterra gaintzeko egin beharreko azterketa prestatzen du Espainiako Justizia Ministerioak. Proba hori 2014an egin zen lehendabizikoz eta ez zen euskaraz egiterik izan. Etorkizunean euskaraz egin ahal izateko “eskaera nahikoa” egon behar omen du. Orduan, non gelditzen da euskararen ofizialtasunaren balioa? Aipatu arauak ez dute inolako aurreikuspenik hizkuntzari dagokionez eta egun ikasle euskaldunen hizkuntza-eskubideak urratuak eta gauzatu ezinak dira.

# 6. ADMINISTRAZIO JARDUERA OROKORRAK

Administrazioek eskaintzen dituzten mota guztietako zerbitzu orokor eta berezietan zerbitzua euskaraz jaso ezina ohiko gertaera dela agerian jartzen dute erabiltzaile euskaldunek.

Ezintasun hori mota guztietako jardueretan islatzen da: aurrez aurreko arreta, telefono bidezko arreta, posta elektronikoa zein SMS bidezko jakinarazpenak, gutunak, informazio-euskarriak, agiri ofizialak, formularioak, hizkuntza-paisaia... Hitz bitan esanda, hizkuntza-eskubideen urraketa ohikoa da administrazio guztietan, izan estatukoak, autonomikoak edo erregioak, nahiz tokikoak.

Herritarrek sarri salatu dute, arreta euskaraz nahi dutela argi adierazi arren, langile erdaldunekin aritu behar izan dutela telefonoz eta baita aurrez aurre ere, beren hautua errespetatu ez zaielako. Langilea adinagatik (45 urtetik aurrera) euskara ezagutu beharretik salbuetsita dagoela eta une horretan deia desbideratzeko aukerarik ez zuela esanez zurrizten du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako Gipuzkoako Lurralde ordezkariak 2001urtetik hona urtero errepikatzen den eskubide-urraketa.

## NAFARROAKO GOBERNUARENTZAT EUSKARA IRIZPIDE DISKRIMINATZAILEA

Nafarroako Gobernuak azken urteetan lanpostuak hornitzeko deialdietan aplikatutako hizkuntza-irizpideek haserrea




eragin dute Nafarroako euskaldunen artean.

Euskara jakitea irizpide diskriminatzailea dela argudiatu, euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin oztopatzeko neurriak abiarazi ditu gobernuak. Ingelesaren ezagutza (atzerriko hizkuntza eta ofiziala ere ez dena) erabakigarri bihurtu du eta euskaraz jakitea merezimendu gisa ez du hartu, nahiz eta legeak euskaraz jakitea kontuan hartzera behartu.

Nafarroako Auzitegiak deialdi batzuk baliogabetu egin ditu dagoeneko eta deialdia oinarri egokiak aplikatuz errepikatzen eskatu dio Gobernuari. Hala ere, Nafarroako Gobernuak berean darrai.



Ahozko arretan bezala idatzizkoan ere gabeziak nabariak dira administrazio eta jarduera esparru gehienetan: jendeari zuzendutako informazio idatzia (argibideak, esku-orriak, kartelak, errotuluak) gaztelania hutsean izatea, web-orrietan euskaraz informaziorik ez aurkitzea, sare sozialetako edukiak erdaraz soilik plazaratzea, jendeak betetzeko inprimakiak euskaraz ez eskaintzea edo ez edukitzea... dira herritarrek euren kexetan agertu dituzten arazoak.



## EUSKARAZ BETETAKO AGIRI OFIZIALAK BALIORIK EZ

Frantziako zein Espainiako Estatuko administrazioen kasuan ohikoa da euskara hutsez idatzitako edo euskarri eleanitzean euskaraz betetako agiri ofizialak ez onartzea, ez badoaz frantsesezko edota gaztelaniazko itzulpenaz lagunduta.

Frantziako Kontsuletxeak itzulpena aski ez eta zinpeko itzulpena eskatu dio herritarrari prozedurari bide emateko. Arazo handi bat da, ez Ipar Euskal Herrian, ez Hego Euskal Herrian ez baitago euskaratik frantsesera zinpeko itzulpena egiteko gaikuntza aitortua duen itzultzailerik. Herritarrak gaztelania zubihizkuntza gisa erabiliz soilik eskuratu ahal izan zuen azkenean, zenbait hilabeteko joan-etorrien ostean, euskara hutsezko jaiotze-agiri literalaren frantsesezko zinpeko itzulpena.

## OFIZIALAK EZ DIREN HIZKUNTZEK EUSKARAK BAINO AINTZATESPEN HOBEA

Administrazioen informazio eta komunikazio politikari dagokionez, euskara bigarren mailako hizkuntza bezala ageri zaigu, oro har, -hirugarren mailakoa ez bada-. Maiz ez bertakoak ez ofizialak ez diren hizkuntzek (ingeleza) euskarak baino aintzatespen hobea baitute herritarrei zuzendutako informazio-euskarrietan edota web-orrietako edukietan bereziki. SNCF bezalako erakunde publikoetan oraindik ezin da euskaraz egin. Ez da langile euskaldunik eta seinale guztiak erdara hutsean dira. Estatu frantsesak hizkuntza gutxituak ukatzeko jarrerarekin jarraitzen duela salatzen, Aitzina gazte antolakundeak Ipar Euskal Herriko herri eta hirietatik frantsesezko izena daramaten 100 seinale kendu eta Parisera bidali zituen.

(Madame, Monsieur,  
Afin d'effectuer la transcription de  
l'acte de naissance de votre  
enfant, il convient de fournir une  
traduction assermentée (ou preuve  
de celle que vous avez  
fournie en cas de bien d'un  
traducteur assermenté)

**CONSULAT GENERAL DE FRANCE A MADRID**

**DEMANDE DE TRANSCRIPTION  
DE L'ACTE DE NAISSANCE D'UN ENFANT MINEUR**  
**PIECES A FOURNIR**

**IMPORTANT**

Le dossier peut être remis ou envoyé à l'adresse ci-dessous.  
Après examen des pièces fournies, d'autres justificatifs pourront vous être réclamés si nécessaire.  
A défaut de production de toutes les pièces énumérées ci-dessous, la demande ne pourra pas être traitée.  
Les documents délivrés par des autorités autres que l'Espagne ou la France devront être, le cas échéant, légalisés  
ou apostillés et accompagnés d'une traduction.  
Les pièces fournies seront conservées au dossier, à l'exception du livret de famille.

→ Demande de transcription complétée et signée par le parent français en double exemplaire
→ <i>Certificación literal de nacimiento</i> de l'enfant (en original, pas d'extraits plurilingues) à demander au registre civil qui a enregistré la naissance + <i>traduction assermentée</i> (traducción jurada)
→ Photocopie de la pièce d'identité en cours de validité de chacun des parents Pour le(s) parent(s) français, il s'agit de la carte nationale d'identité sécurisée ou du passeport biométrique en cours de validité.
<b>Parents mariés</b> → Copie intégrale originale de l'acte de mariage français des parents, ou copie intégrale originale de leur acte de naissance portant mention du mariage L'acte rédigé ni en français ni en espagnol devra être accompagné d'une traduction assermentée.
<b>Parents non mariés</b> → Copie intégrale originale de l'acte de naissance de chacun des parents Certification literal de nacimiento originale et sin certificado digital pour le parent espagnol. L'acte rédigé ni en français ni en espagnol devra être accompagné d'une traduction assermentée.
→ Formulaire de déclaration conjointe de choix de nom
→ Original du livret de famille français, le cas échéant
→ Enveloppe A5 affranchie pour un envoi de 100g en recommandé, à vos nom et adresse
→ Le cas échéant, copie intégrale originale de l'acte de reconnaissance

Calle Marqués de la Ensenada, 10  
28004 Madrid  
Tél. : 91 700 78 00 / Fax : 91 700 77 95  
[www.consulfrance-madrid.org](http://www.consulfrance-madrid.org)



## PUBLIZITATEA INSTITUZIONALA HEDABIDEN HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN ESKU

Ipar Euskal Herrian oso zaila da erakunde publikoek, dela estatukoek, erregiokoek nahiz tokikoek plazaratzen dituzten euskarri, informazio eta publikazioetan euskararik aurkitzea eta agertzen denean maila sinbolikoan ageri da. Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak hiru hiletik behin argitaratzen duen 64 aldizkaria horren adibide dugu. Ale bakoitzean artikulu bakarra irakur daiteke euskaraz.



Prentsako publizitate instituzionala aztertuz gero, Euskal Herriko administrazio gehienek euskarazko iragarkiak euskara hutsezko prentsan soilik txertatzeko joera dutela ikusiko dugu eta erdarazko prentsetan iragarkiak ele bietan txertatu ordez, gaztelania hutsean sartzen dituztela. Bestalde, prentsan publizitatea sartu edo hitzartzeko garaian administrazioek ez dituzte hizkuntza-irizpideak zehatz finkatzen eta hedabide bakoitzaren esku uzten dute hizkuntzen trataera, Bizkaiko Foru Aldunditik aitortu diguten moduan.



## INFORMAZIOA BEREZKO HIZKUNTZETAN ARGITARATZEKO BEHARRIK EZ

Informazioa erdara hutsean argitaratzeak bi hizkuntza ofizialen presentziaren oreka ez bermatzea dakar, normalean euskararen kaltetan, eta ondorioz, euskaldunek informazioa euskaraz jasotzeko duten eskubidea urratzea.

Espainiako Estatuko administrazioaren jokoera itxiagoa da gai honetan; gaztelania Estatuko hizkuntza komuna dela argudiatuz eta guztiek ezagutu beharrekoa, ez du informazioa autonomia erkidegoetako berezko hizkuntza ofizialean argitaratzeko beharrik ikusten estatu osorako egiten dituen kanpainetan.

Hala ere, Gizarte Segurantzako estatu Idazkaritzatik adierazitakoaren arabera, kanpaina instituzional batzuk “hizkuntza koofizialetan egiten dira bigarren hizkuntza Autonomia Erkidegoko lurralde osoan erabiltzen bada”, baina legeak Nafarroa hiru eremu soziolinguistikotan zatitzen duenez eta batean bakarrik denez euskara ofiziala “gaztelaniaz egiten dugu lurralde osoan”.



Argudio berean oinarrituz, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia instituzionala ezkutatzeko eta euskararen prestigio soziala galgatzeko politika erasokorra garatzen du bere komunikazio politika osoan, erakundearen irudi instituzionaletik bertatik hasita. Ildo beretik, lurraldearen euskarazko izena oraindik ofizialdu gabe dauka.

Horrekin batera, herritar guztien artean zabaltzekoak diren liburuxkak, esku-orriak, aldizkariak eta gainerako euskarriak gaztelania hutsean plazaratzen ditu oro har, eta euskaraz egiten dituenean ale berezitan eta oso kopuru txikitik argitaratzen ditu, sarritan jendearen eskura jartzera ere iritsi gabe.

Administrazioek webguneen bidez herritarren eskura jartzen duten informazioan ere, gabeziak ohikoak direla erakutsi dute herritarrek eginiko salaketek. Informazioa euskaraz jasotzeko duten eskubidea bigarren maila batera pasatzen da eta edukiak euskaraz bermatu aurretik jartzen dira erabilgarri web-orriak.


## **NAFARROAKO GOBERNUAK ATZERRIKO HIZKUNTZEI TOKIA**

Beste kasu batzuetan, atzerriko hizkuntzei tokia egiten zaien bitartean, euskarak ez du presentziarik webguneetako edukietan edo euskarazko edukiak guztiz testimonialak dira (Nafarroako Gobernuaren web-orrian kasu)

Administrazio elektronikoari dagokionez, euskaraz abiatutako izapideak ezin dira euskaraz burutu, nabigazio maila batetik gora gaztelaniaz jarraitzen dutelako, euskarazko bertsioek akatsak dituztelako edota zenbait izapide euskaraz egiteko inolako aukerarik eskaintzen ez delako.



Nafarroako Arartekoak zenbait gomendio egin zizkion 2012 urtean Nafarroako Gobernuari, administrazio elektronikoan euskaraz gaztelaniazko baldintza berdinetan aritu ahal izateko plangintza bat egin eta neurri eraginkorrak har zitzan. Gobernuak Arartekoaren gomendioei jaramonik ez egiteaz gain, are gehiago murriztu du euskarazko informazioa [www.navarra.es](http://www.navarra.es) atarian.

A photograph of a crowd of people at night, many holding umbrellas. The scene is dimly lit, with some light reflecting off the wet surfaces of the umbrellas. In the center, a person holds a white sign with text written in a stylized, hand-drawn font. The text is in Basque. The umbrellas are in various colors, including dark blue, red, and plaid. The overall atmosphere is that of a public gathering or protest during a rainy night.

euskaraz  
loizi  
nahi dut

# 7. UDALAK/HERRIKO ETXEAK

## BERDINTASUNA BERMATZEKO GABEZIAK

Herritarrek Behatokira helarazitako gertaeretan oinarriturik esan dezakegu Udal eta Herriko Etxeetan euskaldunen hizkuntza-eskubideak eta herritarren arteko berdintasuna bermatzeko gabezia nabariak daudela.

Kale eta obretako kartelak, errotulazioa eta kale izendegiak, bide seinaleak webguneetako informazioa, jakinarazpenak, buletinak, e-posta mezuak, publizitatea, iragarkiak, oharrak, kartelak eta abar izan dira Behatokira heldu diren urraketen zioak.

Horiek erdara hutsean jasotzea, euskarari presentzia eskaini zaionetan eskasagoa izatea edota akatsekin zabaltzea izan dira herritarrek egindako salaketak.

Zentzu honetan, nabarmentzekoa da Iruñeko Udalak ordenantza bera urratzen segitu duela kale-izenen plaken errotulazioak eta abar gaztelania hutsean paratuz edota euskarazko bertsioan letra txikiagoan jarritz.

Iruñeko Udalak urteak daramatza orotariko trikimailu eta zirrikituak baliatzen bere eskumenekoak diren errotulu, seinale eta enparauetan euskara zokoratzeko.

Bada, Udalak errotuluetan gaztelaniaren nagusitasunari eusteko beste bide bat aurkitu du 2014n: kale izenak toponimo



**COMMUNE DE SOURAIDE**  
**INFORMATIONS MUNICIPALES**

**Piscine et tennis municipaux**

La piscine municipale de SOURAIDE ouvrira ce samedi 5 juillet, elle sera ouverte tous les jours de 15 h à 18 h 45 sous les 26 juillet et 28 août elle sera fermée.

Elle sera ouverte de deux mois et 4 jours au 31 août.

Les tarifs, révisés depuis 2005, sont les suivants :

PISCINE MUNICIPALE CATEGORIES	TARIF POUR 1 ENTREE	CARTE POUR 10 ENTREES
Enfants de 6 ans à 11 ans	1,20 €	10,00 €
Adolescents de 12 ans à 17 ans (sans baignade)	1,80 €	17,00 €
Adultes	2,50 €	20,00 €

TENNIS	TARIF POUR 1 HEURE	CARTE POUR 7 HEURES
Location / entrée	7,00 €	37,50 €

Les locations des courts de tennis s'effectuent également à la piscine durant les heures d'ouverture de celle-ci.

Pour tout renseignement vous pouvez appeler au : 05 59 93 83 83 ou au secrétariat de mairie au : 05 59 93 83 43.

**Nouveaux rythmes scolaires – Avis aux bénévoles :**

Dans le cadre de la réforme des rythmes scolaires qui interviendra à compter de la rentrée 2014, la Commune va proposer 1 h d'activités par semaine aux enfants de l'école publique et en trois fois par semaine : les lundi, mardi et jeudi de 15h30 à 16h30.

Sur ces 3 heures hebdomadaires, 1 heure pourrait être l'occasion de créer de nouvelles initiatives citoyennes ou de partager des connaissances.

Nous faisons donc appel aux personnes qui seraient intéressées de consacrer une heure de leur temps chaque semaine pendant un trimestre ou plus pour permettre leurs compétences (initiation au basque, langues étrangères...) ou leurs passions (jardins, théâtre, chant...) aux enfants entre 6 et 10 ans.


Merci de vous faire connaître au secrétariat de mairie (tel :05.59.93.83.43) par mail le 18 juillet.

La Mairie


bihurtu. Horrela, «25 de noviembre» toponimo bat dela, izen berezia dela eta hizkuntzataraz itzulezina dela erantzun dio euskaltzale batek kale horren errotulu elebakar bat dela-eta jarritako errekurtsuari.



Adibide surrealista da Iruñeko Udalak 2014ko Sanferminetan ekipajea nola gorde azaltzeko ateratako oharra, izenburu beretik hasita (“Ekipajetik arauak”), akatsez josia, euskara ulertezinean. Euskaldunei Udalak dien begirunearen adibide.



Horretaz gain, bai ahozko zuzeneko arretan zein telefono bidezkoan zailtasunak izan dituzte herritarrek harremana euskaraz burutzeko.



Horren adibide, Bilboko Udalarena den Bilbako Kirolak erakundera telefonoz deitu zuen herritarrek jaso zuen erantzuna: “yo no te puedo atender en euskara. Si quieres hablar en euskara, deja tu teléfono y te llamaremos más tarde”. Edota Termibus, autobus geltokian bozgorailu bidezko oharrak gaztelania hutsez zabaltzea.

Bestalde, udalek zuzenean edo kontratazio bidez eskaini eta antolatzen dituzten hainbat zerbitzu, ekitaldi, emanaldi eta abarretan hizkuntza irizpidea kontuan ez hartzearen ondorioz, oztopoak izan dituzte herritarrek euskaraz jarduteko.

Getxoko Udalak, esaterako, Ambigú izeneko udal eraikinaren jabari publikoa emateko baldintzen artean, ez da hizkuntza-betebeharririk ezarri eta euskararen ezagutzari eman zaion puntuazioa altzariei eta apaingarriei ematen zaiona baino baxuagoa izan da.

Sare sozialen bidez herritarrei zabaltzen zaien informazioa erdara hutsean edo euskararen presentzia txikiago eskaintzeagatik ere kexak jaso dira.



planen kontra egin du edota aktak euskara hutsean helarazteagatik epaitegietara eramán ditu.

Nafarroan Nafarroako Gobernuak berak UEMAko kide den Baztango Udalaren euskara plana inpugnatu zuen eta Nafarroako Administrazio Auzitegiak Uharte Arakilgo Udalak onartutako euskara ordenantzaren bi artíkulu deuseztatu zituen, Udala gutxienez gaztelania erabiltzera behartuz.

Joan den ekainean, berriz, Uztaritzeko Herriko Etxeak pauso ausarta eman zuen euskararen alde, hizkuntza ofizial gisa izendatuz baina Pyrénées Atlantiques departamentuko prefeta berehala hurbildu zen Auzitegi administratibora erabakiaren baliogabetzea eskatzeko, eta honek deliberoa erabat ilegala eta antikonstituzionala dela argudiatuz, baliogabetzea erabaki zuen.

Uztaritzek nahi izan du erakutsi, nahiz eta legezko hizkuntza ez izan, bere babesá eta erabilpenaren aldarrikapena zilegi dela. Frantses errepublikaren baitan, frantsesaz gain ez da beste hizkuntza ofizialik. Euskarak jarraitzen du babes legalik gabe, beraz.

# 8. KULTURA eta HEDABIDEAK

Aisialdiaz euskaraz gozatzeko aukera maiz mugatua izaten da ekitaldi horiek antolatu edo bideratzen dituzten erakunde, publiko nahiz pribatu, aunitzek euren programazio eta ekimenak erdara hutsean eskaintzen dituztelako. Horrela bada, euskal komunitateak euskaraz gozatu nahiko lituzkeen aisialdi edo kultur jarduera horiek erdaraz kontsumitzera derrigortuta dago.



Zinemetan filmak ikusterako unean euskarazko filma gutxi eskaintzen da Euskal Herriko zine-aretoetan. Telebistan ere telesail eta euskarazko filmen programazioa eskasa da oso; nahiz eta aukera berri bat zabaldu den 2014an Eusko Jaurlaritzak eta Canal +ek sinatutako akordioari esker: jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpiztituluekin eskainiko ditu bere estreinaldi gehienak. Kate pribatua eta ordainpekoa izanik, soilik horregatik ordaintzeko prest daudenak ikusi ahal badute ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait museotan, Bilboko Guggenheim kasu,

euskara erabiltzen den arren, hainbatetan kezu iturri bilakatu da hizkuntza traketsa erabili eta haren sare sozialetan batik bat erdaraz aritzeagatik.



Donostiako 2016 Europako Kultur Hiriburu fundazioak (Donostiako Udalak, Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Kultura Ministerioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatua), zuzendari kargurako euskalduna ez hautatzeak ere euskal komunitatearen haserrea piztu zuen.

## berria

**Ilankua berria** | **ilabora** The e-Learning Company | **GIJON** Etxe irankorta Ikastaroa | **Deskontu %75** | **19,00** Eskaintza ikus

Kultura > f 0 t 0 0

### Donostia 2016 zuzentzeko euskara ez eskatze salatzen du Kontseiluak

Euskarak «ezinbesteko» baldintza izan beharko lukeela nabarmendu eta kultur hiriburutzaren proiektua «zorrotz» aztertuko duela iragarri du

2014-09-12 / Erredakzioa

**«E** rabat desegokia». Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak hala definitu du Donostiako kultur hiriburutzaren proiektuko zuzendari nagusi Pablo Berastegi erdalduna izatea. Era berean, kontratatzeko irizpideetan euskara eskatu ez izana «onartezina» dela adierazi du. Hori da «arazoaren jatorria», erakundearen interpretazioaren arabera.

Donostia 2016 «euskara eta euskal kultura sustatzeko eta nazioartean ezagutzera emateko» aukera «paregabea» da, Kontseiluaren aburuz; baita «hizkuntza nahiz kultura gutxiagotzeko ezagutzera eman eta hizkuntza aniztasunari balioa emateko ere». Horregatik, euskara «ezinbesteko baldintza» izatea

**www.euskalherriko Plaza.com**

Euskal Herriko kalitatezko produktuak erakundearen eskutik mundura

Kargurako baldintzen artean ingelesa jakin beharreko hizkuntza zen, baina euskara, berriz, ez. Behatokian kexa jarri zuen herritarrek argi eta zuzen planteatu zuen zalantza: “euskaraz ez dakien zuzendariak zer ezagutza izaten ahal du euskal kulturaz?”

Nafarroara etorrita, liburutegi publikoen sarean, eremu euskalduna deritzon, dauden Nafarroako liburutegien plantilla organikoan ez da profil elebiduneko langilerik eskatzen, ez dute euskara jakin beharrik. Hizkuntza-eskubidea urratzeaz gain, herritarrei ematen zaien zerbitzua baldintzatzen du erabat.

Nafarroako Gobernuaren kultur webgunearen ([culturanavarra.es](http://culturanavarra.es)) euskarazko atalean gaztelaniazko hainbat testu argitaratzen dituen ere, ez ditu euskal hiztunak kontuan hartzen.

Iruñeko Udalaren kasuan, webgunean ageri den informazioa ez da berdina izaten euskarazko web orrian, izapideak maiz ezin dira bideratu, hiritar guztiei zuzendutako liburuen argitalpenak gaztelania hutsean egiten dira, Sanferminetan udalak hiriko hainbat tokitan paratzen dituen afixek Euskararen Ordenantza urratzen dute, kultur programazioetan (Civivox, Eguberrietakoa, Aste Saindukoa) gaztelania da jaun eta jabe. Udalak antolatzen dituen ekimenak iragartzeko orri bikoak ere zaila da euskaraz eskuratzea, argitaratzen direnean, askoz ere kopuru txikiagoa izaten baita.

Horiek horrela, aisialdirako tartea hartzen duenean, euskal hiztunak maiz marjinatorik ikusten du bere burua eta oztopoak aurkitzen ditu erakunde pribatu nahiz publikoen partetik euskaraz normaltasunez bizi ahal izateko.

## HEDABIDEAK



Azken urteotan, krisiaren argudioari helduta, Nafarroako Gobernua euskal komunikabideak itotzeko bidean jarri ditu diru laguntzen desagertzearen ondorioz. Bertan aritzen diren profesionalen erantzukizun eta konpromisoari esker ari dira aurrera egiten, nola edo hala, bizirauten.



ETB Nafarroan ikusteko afera ere ez da berria. 2015eko urtarrilaren lehen gertatuko zen itzalaldi analogikoa zela eta, 2014 urtearen amaieran Nafarroako Parlamentuko alderdi guztiek, Foru lurraldean ETB TDT bidez ikus zedila eskatu zioten gobernuari.

Parlamentuaren gehiengoak mozioa onartu bazuen ere, gobernuak ez du kasurik egin eta aferak hortxe dirau. Maiatzean Nafarroan ETB digitalki ikusi ahal izateko Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak osatutako batzordea bildu zen. Nafarroako Gobernuak digitalizazio plana legezkoa ez izatea eta Nafarroako errealitate instituzionala ez errespetatzea egotzi zion Eusko Jaurlaritzari.



## Iruñeko irrati lizentzien banaketa bertan behera utzi du Gorenak

Euskalerrria irratiairen alde egin du Espainiako auzitegiak, eta Nafarroako Justizia Auzitegiak errandakoa berretsi du «Pozik» dago Mikel Bujanda, baina oraindik baimenik ez dutela lortu nabarmendu du



Euskalerrria irratiairen Donibane auzoko irri

2014-01-10 / Edurne Elizondo



**H**irugarrenez, Euskalerrria irratiairen alde egin dute epaileek. Oraingoan, Espainiako Auzitegi Gorenak



Edurne I

2014an berriro ere, auzitegien erabaki eta Iruñerriko euskal komunitateak emandako babesari muzin eginez, Nafarroako Gobernuak Euskalerrria irratiairen kontrako gurutzadarekin jarraitu du. 2014ko urtarrilean Espainiako Auzitegi Gorenak Net21 eta Radio Universidad de Navarra irratien lizentzia esleipenak bertan behera utzi eta Euskalerrria Irratiaren alde egin zuen.

Dena dela, irratia ez du oraindik Nafarroako Gobernuaren aldetik inongo berririk jaso. Nafarroako Parlamentua, Madrilgo Diputatuen Kongresua eta Europako Batzordea Euskalerrria Irratiaren egoera legala konpontzearen alde azaldu badira ere, Nafarroako Kultura kontseilariak, sententzia betetzen ari direla eta ez dabiltzala “nahita prozesua atzeratzen” aipatu izan du. Iruñerriko euskaraz aritzen den irrati bakarrak oraindik ere ez du zor zaion lizentziarik eskuratu.

Horrela, Euskal komunitatearen sostengua ezinbestekoa bilakatu da bestelako proiektu batzuei heltzeko, Iruñerriko Xaloea telebista martxan jartzeko abiatutako Crowdfunding kanpainak erakusten duen moduan.



Bestalde, 2014ko ekainean .eus domeinuaren lehenengo webgunea martxan jarri eta abenduaren 3an milatik gora .eus domeinu izatea ere euskal komunitatearen lorpena da eta hori urrats garrantzitsua da euskara eta euskal kultura zabaldu eta ezagutarazteko.



iz

araz

at

Euskaraz Euskaraz

Euskara

biziki

biziki

nahi

Euskara

Euskaraz  
biziki

Euskaraz

biziki

biziki

Euskaraz

biziki

biziki

eu



## KONTSUMO-HARREMANAK EUSKARAZ EZIN

Arrazoiei dagokienean, ahozko zerbitzua euskaraz jaso ez izana eta publizitate euskarriak, webgunea, hizkuntza-paisaia eta idatzizko komunikazioa euskaraz ez egotea izan dira kexa gehienek arrazoiak.


Herritarrek zerbitzu-emaileari euskaraz zuzendu zaizkionean, tamalez, erantzun zakarra jaso dute zenbait aldiz edo herritarra gutxietsi egin dute dagokion tratu duina ukatuz.

Kasu bat baino gehiago izan dira aurten jaso ditugunak: DBuseko gidariaren jarrera, ADIFeko zaindariarena, RENFEko segurtasun-zaindariarena edo Euskotreneko langilearena ditugu horren adibide. “Estamos en España. Habla en español” bezalakoak entzun behar izan dituzte herritarrek. Edo Renfeko zaindarien “estamos en España y la lengua oficial es el castellano” esateaz gain, ertzainei deitu zieten herritarrek euren artean euskaraz hitz egiten jarraitu zutelako.

Behatokiak Vascolac-i ondoko kexa bideratu zion: “Gailla markako gazta freskoak erdara hutsean du etiketa; baina modu sinbolikoan-edo euskara darabil: “BERTOKO PRODUKTUA”. Euskara edo euskaldunok behin gutxietsita, berba bi horiek modu horretan erabiltzeari nik neuk iraingarria deritzot. Euskarak ez duela balio edo euskaldunok euskaraz etiketarik ez dugula merezi adierazten baitute, nik uste.”

Bada VASCOLAC S.L.k helarazitako erantzunaren zati bat egia ez izateaz gain, mespretxua da nagusi gutunean: “Jakinarazi nahi dut, zalantzarik balego ere, enpresa honek Giza Eskubideen

Deklarazio Unibertsalak eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak aitortzen dituzten eskubide guztiak betetzen dituela. (...).



## IPAR EUSKAL HERRIAN ETA NAFARROAN KONTSUMITZAILE EUSKALDUNAK IKUSEZIN

Lapurdin, Nafarroa Beherean, Nafarroa Garaian eta Zuberoan kontsumitzaile euskaldunek inongo babesik ez duten bitartean, otsailaren hasieran, EAEko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei Buruzko 123/2008ko Dekretuak izan duen eragina aztertu duen ikerketa baten datuak aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzak.

## EAEan ARAUAK BETE EZEAN HELDULEKURIK EZ




**ESPECIAL DECORACIÓN**  
Tus ideas hacen único tu hogar

Pulsa aquí para co...

**20% DE DESCUENTO**  
al contratar su Seguro Multirriesgo de Comercio antes del 30 de abril

Dekretuaren batez besteko betetze maila %22an dagoela da ikerketaren emaitza. Emaitza kaxkarra da, eta herritarrei begira, etsigarria. Zinez etsigarria, aipatu dekretuak ez baitio EAEko merkataritza osoari eragiten, interes orokorreko zerbitzuen hornitzaileei (energiako enpresak, telekomunikaziokoak, banka, garraio publikoa...) eta 15 langiletik gora edo 400 metro karratutik gora dituzten saltokiei baino ez; eta saltokien kasuan ez EAE osoan, soilik hiru hiriburuetan eta %33 biztanle elebidun duten udalerrietan

Dekretua eskasa da hasieratik beretik, baina 2012ko otsailean dekretua ia erabat indargabetua gelditu zen arau-hausteengatik zehapenen atala kentzea onartu baitzuen Eusko Legebiltzarrak. Ondorioz, zigor atalik gabe, dekretuak ezartzen dituen beharrak betetzea borondatearen esku utzita, legea gomendioen pare gelditu zen.



Ven a Movistar con nuestro mejor precio: **Fusión TV contigo**

42 Canales

900 310 040

Eres de Movistar

LA ELECTRICIDAD DE IBERDROLA PROCEDE EN SU MAYOR PARTE DE FUENTES RENOVABLES Y ES RESPETUOSA CON EL MEDIO AMBIENTE.

SUS GESTOS AHORRAN ENERGÍA Y CUIDAN DEL PLANETA

Cada vez consumimos más energía y los recursos para generarla no son infinitos. Por eso, pequeños gestos pueden disminuir su consumo manteniendo su confort. Así conseguirá aumentar su ahorro y cuidar del planeta que nos proporciona esa energía.

- Las lámparas de bajo consumo consiguen un ahorro de energía de hasta el 80% y duran hasta 8 veces más que las tradicionales.
- Utilizar el lavavajillas y la lavadora al máximo de su capacidad, seleccionando el programa adecuado, reduce el consumo de energía, agua y detergente y alarga la vida del electrodoméstico.
- Instalar termostatos para regular la temperatura de su hogar. El aire acondicionado gasta entre un 4% y un 6% más de energía por cada grado que se baja la temperatura.
- Si se regula el termo eléctrico por encima de 60°C se reduce su duración y se malgasta energía.
- Tapar los recipientes mientras se cocina permite consumir menos energía en la cocción, ya que se consigue un calentamiento más rápido.

Más consejos en [www.iberdrola.es/consejosdeahorro](http://www.iberdrola.es/consejosdeahorro)

IBERDROLA  
Queremos ser tu energía

Horiek horrela, harrigarri egiten da 2014an Espainiako estatuak argitaratutako Euroitunaren laugarren ebaluazio txostenean onartu diren arauen artean, Jaurlaritzak hizkuntzaren aldeko lege gisa aipatzea Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen Dekretutik zehapenak kendu izana.

Are gehiago, duela hilabete batzuk ezagutzera eman zen ikerketaren emaitzek erakusten dutenean Dekretuaren betetze-maila oso txikia dela, %22koa. Emaitza honek argi uzten du Dekretua, dagoen bezala, ez dela juridikoki baliozkoa hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Hizkuntza Eskubideen Behatokia jaso ditugun kexek ere kontsumitzaile euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzeko ez dela lege egokia baieztatzen dute.



Euskaraz  
bizizi  
nahit du

# 10. ONDORIO NAGUSIAK

Oraindik ere nabarmena da frantsesaren eta gaztelaniaren nagusitasuna, eta erakunde publiko zein pribatuek hizkuntza-eskubideen bermea aintzat ez hartzearen ondorioz, herritarrak eskubidez gabeturik ikusten du bere burua askotan. Balantza ez dago orekatuta.

Euskaraz jarduteko ezintasuna mota guztietako zerbitzu eta jardueretan islatzen da: osasun zerbitzuetan, justiziaren eremuan, segurtasun arloan, administrazio guztien jarduera orokorretan, hezkuntzan, aisialdian, komunikabideetan... Baita sektore sozioekonomikoko kontsumo-harremanetan ere. Horien guztien artean, halere, badira nabarmentzen diren hainbat eremu:

## OSASUNGINTZA

Familia medikuei nahiz pediatriei loturikoak dira arrangura gehien sortzen duten urraketa egoerak. Oinarri-oinarrizko zerbitzuak izanik ere herritarrak erdaraz egitera behartuak daude medikuarengana joaten direnean.

Idatzizko hartu-emanari dagokionez, herritarrei helarazi inprimakietan, SMS mezuetan, jakinarazpenetan, historia klinikoetan, gaixotasunari buruzko jarraibideetan eta abar euskararen presentzia ez dago ziurtatua.

Arreta euskaraz ematea kalitatearen, hurbiltasunaren eta enpatiaren seinale baldin bada, oinarrizko eskubide den osasun-asistentzia duina jasotzetik urrun daude euskaldunek.

Egoera bidegabe hauek gainditzeko premiazkoa da langile elebidunak kontratatzea eta neurriak hartzea.

### LAN-HIZKUNTZA GAZTELANIA NAGUSIKI

Osasun zerbitzuetako lan hizkuntza erdara da nagusiki. Langileek eguneroko lana egiteko bitarteko asko ez daude euskaraz: programa informatikoak, txostenak, langileendako gidak, oharrak... Horrela, lan-harremanak euskaraz burutzeko orduan urraturik ikusten ditu hizkuntza-eskubideak langileak.

# HERRIZAINGOA/SEGURTASUNA

Urteak joan urteak etorri, errepikatu egiten dira herritarrek euren hizkuntza- eskubideak errespetatu edo bermatu ez dizkietelako egiten dituzten kexen zioak: ahozko zerbitzua euskaraz eman ezina, salaketa agiriak gaztelania hutsean, isunak gaztelaniaz beteta, herritarrei luzatutako agiriak/oharrak, seinaleak erdara hutsean...

Frantzia zein Espainiako Gobernuetako Barne Saitetako eta hauen menpeko erakundeetan gaztelania eta frantsesa dira lehentasunezko hizkuntza eta berme osoa duen bakarra. Segurtasunarekin zerikusia duten jardueretan oso nekez bermatzen da euskaraz egiteko eskubidea, dela hitzez, dela idatziz.

Herrizaingo Sailaren kasuan Ertzaintzak ez dute herritarrei arreta euskaraz eta egoki emateko behar besteko langilerik. Ertzainek zerbitzua euskaraz egoki emateko gaitasun-eza argudiatzen dute herritarren aurrean.

Zerbitzuari dagozkion funtzioak egoki betetzeko eta herritarrei eman beharreko zerbitzua haien aukerako hizkuntzan emateko agente elebidunak dira bermea.

Ondorioz, euskaraz ez dakiten agenteak kontratatzeak kaltea dakarkie hizkuntza-eskubideen bermeari eta eskainitako zerbitzuaren kalitateari.

Nafarroako Gobernuaren Barne Sailak ohikoa duen jarduerari eutsi dio. Lan-postu batean ere ez da nahitaezkoa euskara jakitea. Ondorioz, Nafarroako Lege murrizak eremu euskalduna deritzonoko herritarrei aitortzen dizkien eskubideak ere ez dira bermatzen.

Barne Sailei dagozkien kexetan oraindik erantzun zakarrak, mehatxuak, eta egoera deserosoak pairatu behar izan dituzte herritarrek euskaraz egin nahi izateagatik.

## JUSTIZIA

Justizia arloan egiturazko arazoek bere horretan segitzen dute. Espainiako eta Frantziako autoritateek dute justiziaren eskuduntza eta euskarak hizkuntza arrotza izaten segiten du epaitegietan. Ondorioz, eskubideen urraketa sistematikoa da.

Espainiako Estatuak ez du ziurtatzen jurisprudentzia-organoezko prozedura euskaraz aurrera eramatea alderdiren batek hala eskatuta ere. Prozedurak ez dira euskaraz izapidetzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko auzipetuek euskara erabil dezakete, baina, beti ere, itzulpenren menpe edo itzultzailearen bidez jarduneko gero soilik eta, gainera, baloratzen dena gaztelaniara eginiko itzulpena izaten da.

Euskarak hizkuntza arrotza izaten jarraitzen du epaitegietan. Ondorioz, eskubideen urraketa sistematikoa da.



# HEZKUNTZA

Ipar Euskal Herrian, bai murgiltze ereduan eta bai eskola elebidunetan arazoak eta oztopoak dituzte euskarazko irakaskuntza garatzeko.

Bestalde, beste urte batez, ikasle euskaldunek ez dute Baxoa euskaraz egiteko aukerarik izan.

Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza sistemaren maila guztietan daude oztopoak hezkuntza euskalduna jaso ahal izateko. Gobernuak euskal hezkuntzarekiko jarrera baztertzaila du. Vasuencearen Legearen interpretaziorik mugatuena egiten du eta euskarazko irakaskuntza publikoa lurraldearen eremu batzuetara mugatzen du.

Vasucenceren Legea aldatzeko lehen urratsa eman zuen Nafarroako Parlamentuak 2014an. Aldaketa hori zein baldintzetan garatuko den ikusteke dagoen bitartean, ehunka familien egoerak zaila izaten jarraitzen du.

Nafarroako irakaskuntzan euskara zokoratzen den bitartean ingelesezko programak inposatzen ditu Nafarroako Gobernuak.

Euskal Autonomia Erkidegoan, unibertsitatean, zailtasunak daude, esaterako, medikutza ikasketak euskaraz burutzeko. Horrekin batera Ikastetxe publiko zein itunpekoen 2014-2015 ikasturterako Lanbide Heziketako eskaintza mugatua izan da euskarazko lerroan.

# SEKTORE SOZIOEKONOMIKOA

Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian zerbitzu horiek euskaraz jasotzeko inongo berme juridikorik ez dute kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunek. Nafarroa osoa eremu ez-euskalduna da kontsumitzaile euskaldunekiko. Eta Ipar Euskal herrian frantsesaren derrigorrezko erabilera da Estatuak ezartzen dituen arauen edukia.

Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuaren betetze-mailaren azterketaren emaitza eskasak ez du Dekretua betearazteko neurririk eragin. Horrela, kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunak beren hizkuntza-eskubideak egikaritzeko inolako heldulekurik gabe daudela esan daiteke.

# BESTELAKO ONDORIOAK

Botere publikoei, administrazioei, instituzioei dagokie hizkuntza-eskubideen bermea eta eskubide hori praktikara eramateko ahalegina eta euskararen erabilera ziurtatzeko neurriak hartzea.

Idatziz zein ahoz, euskara erabili daitekeela bermatzeak, administrazioen eta entitateen kudeaketaren optimizazioa dakar, pertsona ororen hizkuntza-eskubideak bermatzen dira eta kalitatezko zerbitzu hobea eskaintzen da gainera. Horrela, urratze-egoerak saihesteko eta euskaldunen hizkuntza-eskubideak ziurtatzeko biderik eraginkorrena, urratze-egoerei aurre hartu eta prebentzio neurriak hartzea da. Euskaraz bizi ahal izateko ezinbestekoa da herritarren eta erakundeen konplizitatea.

Orri hauetan jaso ditugun bizipenek uzten duten argazkian euskaraz bizi nahi duten herritarrak ageri dira toki nabarmenean. Euskaraz bizitzeko aukera kontzientea egin duten pertsonak dira, ahal duten guztietan euskaraz egiten dutenak, natural eta bizi-pozez.

Euskara erabiltzea galarazten zaienean, hizkuntza-eskubideak urratzen zaizkienean, uzkurtu gabe, euskaraz bizi nahiari eutsi eta egoera hobetzeko zerbait egiteko beharra sentitzen dutenak.

Urraketek sentiarazten dioten nahigabea, zailtasunak aurkitzen dituenentz sentitzen duen frustrazioa oztupoak gainditzera bideratu duten pertsonak. Euskaraz bizitzeko hautu kontzienteak bultzatuta, urraketari konponbidea bilatu asmoz laguntza eta babes bila Behatokia jo dutenak. Bere eremu txikiko errealitatea aldatzeko gaitasunean sinisten dutenak.

Eta sinismen horrek emaitzak ematen ditu. Herritarrek hartzen duten jarrera aktiboak hizkuntza-eskubideen arloan pauso eraginkorrak bideratzeko motorra dira. Euskaraz bizi nahi duten pertsonak hizkuntza-eskubidea egiazki betetzeko egiten duten indarrak administrazioen eta entitateen hizkuntza-portaeretan aldaketak eragiten dituzte.

Pertsona hauek inportanteak dira euskararentzat, euskara inportantea delako beraiantzat. Eta eginahal horretan bidelagun dute Hizkuntz Eskubideen Behatokia.

# 11. DATUAK

## KASUAK OROTARA

JATORRIA	MOTA	KOPURUA
Herritarrek helarazitakoak	Kontsultak	21
	Kexak	936
	Zoriontzeak	43
	Izaera gabeak	3
	Datuak falta	10
<b>GUZTIRA</b>		<b>1013</b>


## SEKTORE PUBLIKOA

ERAKUNDEA	KOPURUA
Espainiako Estatuko Administrazioa	75
Frantziako Estatuko Administrazioa	14
Eusko Jaurjaritza	135
Nafarroako Gobernua	101
Arabako Foru Aldundia	4
Bizkaiko Foru Aldundia	33
Gipuzkoako Foru Aldundia	4
Arabako udalak	19
Bizkaiko udalak	61
Ipar Euskal Herriko Herriko Etxeak	18
Gipuzkoako udalak	14
Nafarroako udalak	90
<b>OROTARA</b>	<b>568</b>

## SEKTORE SOZIOEKONOMIKOA

EREMUA	KOPURUA
Aisialdia	47
Aseguruak eta finantzak	36
Elikadura eta ostalaritza	43
Ekonomia eta lan mundua	2
Interes orokorreko zerbitzuak	72
Merkataritza gune handiak, kateak denda erraldoiak	82
Mundu asoziatiboa	51
Profesionalak, zerbitzuak eta merkataritza txikia	35
<b>OROTARA</b>	<b>368</b>

## DOSIERREN BILAKAERA 2002-2013





07 PAMPL  
3 994 - Fax: !  
stf

bizi  
nahi

euskaraz  
bizia

euskaraz  
bizia  
nahi dut

euskaraz  
bizia  
nahi dut

euskaraz  
bizia  
nahi dut

euskaraz  
bizia  
nahi dut

euskaraz  
bizia  
nahi dut

euskaraz  
bizia  
nahi dut

euskaraz  
bizia  
nahi dut

euskaraz  
bizia  
nahi dut


euskaraz  
bizia  
nahi dut

euskaraz  
bizia  
nahi dut

euskaraz  
bizia  
nahi dut

euskaraz  
bizia  
nahi dut

euskaraz  
bizia  
nahi dut



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN  
**BEHATOKIA**